


Aretxagazeta

ARETXABALETA / Egubakoitza / 2003ko abenduaren 26a / 321. zenbakia

2003 urteari begiratuwa ARETXABALETA



EGUZKiGRAF

inprimategia

25.
urteurrena

1979-2004

Azkarate eta Ardatza: arotz lanetan behar duzun guztia



Ate irristagarriak



Parket flotatzailea



Ateak • Leihoak • Horma-armairuak • Tarimak • Parketak • Sukaldeak

Neurrira ebakitako tableroak • Apalak • Kajoiak • Zokaloak
Moldurak, sarraillak • Manilak • Egurrezko objetuen pintaketa



AZKARATE
AROSZTEGIA

Telleria 19, B-0-2 B-0-3
BERGARA
Tel.: 943 76 47 19
610 884 020



ARDATZA

Brikolaketa

Masterreka 4, behea.
Tel.: 943 76 18 93
BERGARA



JAUSORO OSTATUA




Zorionak eta
Urte berri on!

Durana kalea 18 1.ESK
ARETXABALETAK

Tel.: 943 79 89 69
Sakelakoa: 656 74 81 61

KALEINKESTA/ Zela balorauko zeuke 2003. urtie? Eta 2004. urtiei ze eskaketan dutzezu?

**KARMENTXU USANDIZAGA**
Langillie**JOSU URKIA**
Langillie**ARANTXA MUJIKA**
Langillie**IÑAKI BRUÑA**
Langillie**MARKELIÑE MENDIETA**
Jubilaue**IBON URKIA**
Langillie

Urte oso ona izan danik ezin esan. Horrenbeste gauza pasatu ditud... Oin momentuen operante nau. 2004. urtiei loterixie toketako eskatuko neuskio. Hori tokau ezker, primeran!

Neuretako, alderdi pertsonalien batipat, oso ona izen da. 2004. urtiei edozer eskatute be, pasau biherrekue pasauko da; hortan... Baiñe, bueno, txarrera ez daille fan eskatuko dutzet.

Gauza gehitxo euki ditud, baiñe, bueno, hala eta be nahiko ona izen dala uste dot. Datorren urtiei osasune eta danondako pakie eskatu gure dutzet. Horrek falta egitten dau.

Berezixe izen da. Zergaittik? Hori ezin dot esan... 2004. urtiei askatasune eskatuko neuskio. Lelengo niretako eta gero inguruko beste danondako askatasune gure neuke.

Orokorrien ondo fan da 2003. urte hau. Datorren urtiei, barrez, ixerterto eskaketan dutzetena eskatuko dutzet: osasune, pakie eta lana euki daigule danok.

Oso ona izen da, aitte izen naz eta gauzak, orokorrien, ondo fan die. Datorren urtiei igual jarraitetako eskatuko dutzet. 2003. urtie moduko ona izen daille, behintzet, gureko neuke.

ETABARRUAN...

GAINBEGIRATUA	/3
URTEA DATUTAN	/4
ONENA ETA TXARRENA	/5
IRUDIAK	/22

URTEARI GAINBEGIRATUA

Urtarrila	/6
Otsaila	/7
Martxoa	/8
Apirila	/9
Maiatza	/10
Ekaina	/12
Uztaila	/15
Abuztua	/16
Iraila	/17
Urria	/18
Azaroa	/20
Abendua	/21



ZURIETABELTZ

**ARRITXU OLIDEN** / Alkatea*Sei hilabeteotako balorazioa*

Udal gobernuan daramatzagun sei hilabeteotako lanaren balorazioa egitea eskatzerakoan, jende aurrean erakusteko zertzuk neuzkan bururatu zitzaidan, legealdi honetan ez baitugu astirik izan kultur etxerik, etxebizitzarik edo beste eraikin ikusgarriarik egiteko.

Baina, horiek dira erakutsi beharrekoak? Ez, horixe. Herri honen ezaugarri den gauzak egiteko modu propioa bada goela uste dut: elkarlanaren bitartez ibili beharreko bideak zabaltzea, alegia. Hau izan da zalantza barik orain arteko lan garrantzitsuenetako bat: Udal gobernuaren oinarriak finkatu ditugu taldeen arteko akordio bidez. Badakit oraindik zati esanguratsu bat kanpoan dagoela, baina hitz eginez denontzako emankorra izango den gune adostu batera iritsiko garela nago.

Udal gobernu honen zereginen artean labor esanda zera aipatuko nuke: aurreko legealdi-

tik gure eskuetara iritsi diren inbertsionarako proiektuak eta arau garapenerako ekimenak bideratzea eta tramitatzea. Honekin bat, abian jarri nahi ditugun proiektu propioak adostu eta aurrera eramateko bideak ezartzen

“Udal gobernu honetako kideok esan dugu herritarrek egindako Plangintza Estrategikoa izango dela gure gida liburua”

ari gara. Behin eta berriz Udal gobernu honetako kideok esan dugu herritarrek egindako Plangintza Estrategikoa izango dela gure gida liburua, eta hauxe da momentua aurrekontuak plangintzara egokitze; horretan dihardugu.

Hirugarren zeregina Aretxabaleta kanpora zabaltzea izan da, eta beste erakunde batzuekin dituen harremanak sakontzea, tinkoagoak eta iraunkorrak bihurtzeko: Jaurilaritzako eta Foru Aldundiko departamentuekin, beste herri batzuetako udalekin, eta beste organismo batzuekin.

Bukatzeko, aretxabaletar guztioi jai zoriontsuak igaro ditzazuela opa dizuet; urtea ondo bukatu eta datorrena hobeto hasi, guztiontzat oparua izanez.

**M. J. ARETXAGA** / Herritarra*Ordezkarriak, proiektuak eta urteurrenak*

Ez da gero samurra urte osoa lau berbatan laburtzea. Udal hauteskundeak azpimarratuko nituzke batetik, orduko emaitzak lau urterako baldintzatu gaituztelako.

Hauteskundeetara bi talde berri aurkeztu ziren: Aretxa plataforma (Batasunaren ordez) eta Aralar alderdia. Aretxa, legez kanpo utzi zuten, herritar askoren ahotsa isilarazi guran. EAJ/EA koalizioak (ez dakit koalizio esan daitekeen) irabazi zituen hauteskundeak, eta Aralarrekin eta Ezker Batuarekin osatu zuen Gobernu batzordea. Aretxak lortutako ordezkarri biei oraindik ere ez diete lekuri topatu Udalean; bada gero garaia!

Lurralde Zatiko Planak eman du zeresanik asko eta oraindik ere emango du. Aretxabaletarroi ez zitzaigun batera gustatu Kurtzebarri mendi magalerako Eusko Jaurilar-

tzak prestatu zigun proiektua: 1.000 etxebizitza, Urkulu-II urtegia... eta besterik? Alegazioa aurkeztu zuen Udalak, eta orain, alderdi, eta talde batzuk horren aurka egin gura dute.

Bertakook erabaki beharko dugu bada zer gura dugun, ez?

Etxebizitzek ere zeresana ematen jarraitzen dute. Etxabeetan etxebizitzak egiteko ordenantza onartu zuen Udalak martxoan, baina enpresa erakitzailak sartzen badira tartean ez dute merkeagoak izango direnik. Bestalde, errekarren beste aldean egin behar dituzten etxebizitzetatik %65 babes publikokoak izan behar ei dira; ia berba betetzen duten zurrumurru ugari dago-eta.

Urte gazi-goza izan da duda barik, baina gozo-goza bukatzeko urteurrenak aipatuko nituzke: Kurtzebarriko gurtzearen 75. urteurrena, eta Tubos lantegiaren eta Muru-Alde elkarteen 50. urteurrenak.

“Aretxabaletarroi ez zitzaigun batera gustatu Kurtzebarri mendi magalerako Eusko Jaurilaritzak prestatutako proiektua”

Aretxagazeta

Durana, 11
20550 ARETXABALETA
Tel.: 943 79 86 21
Faxa: 943 77 18 54

Posta-e: aretxagazeta@goiena.com

ZUZENDARIA
Aintzane Gardoki

ERREDAKZIOA
Kepa Errasti
Mirari Altube
Amagoia Lasagabaster

MAKETAZIOA
Alex Azkarate

PUBLIZITATEA
Ziortza Martin

ZUZENTZAILEA
Sergio Azkarate

LEGE-GORDAILUA
SS-378-94

ISSN
1134-2609

TIRADA
3.800 ale

ARETXAGAZETA / ZE BARRI? • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurilaritzako
Kultura Saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Aretxabaletako
Udala



Eskoriatzako
Udala




Leintz Gatzagako
Udala

URTEA DATUTAN

Urtea joan da eta hainbat kontu, irudi eta datu utzi dizkigu gogoan. Datuak kontuan hartzen hasita mila zerrenda egin daitezke, baina guk bi eratakoak egin ditugu: alde batetik, aisialdia hobeto pasatzen laguntzen

diguten egunkari, liburu, aldizkari eta bideo hartuenak zeintzuk izan diren jakin gura izan dugu; eta, bestetik, herrian jaiotakoen eta hildakoen zerrenda dago. Datu guztiak abenduaren 19ra bitartekoak dira.



LIBURU hartuenak

ELEBERRIAK EUSKARAZ

1. 'SP RAKO TRANBIA' Unai Elorriaga
2. 'Galdu arte' Juan Luis Zabala
3. 'Van't Hoffen ilea' Unai Elorriaga

ELEBERRIAK GAZTELERAZ

1. 'El señor de la guerra' Toti Martínez de Lezea
2. 'Los hijos de Ogaiz' Toti Martínez de Lezea
3. 'La ciudad de las bestias' Isabel Allende

UMEEN LIBURURAK EUSKARAZ

1. 'Piratak : OT aztia' Picanyol
2. 'Takolo, Pirritx eta Porrotx hondartzan' Mixel Murua


UMEEN LIBURURAK ERDERAZ

1. 'La siniestra Susie y...' Angus Oblong



BIDEO hartuenak

1. 'El señor de los anillos: las dos torres' Peter Jackson
2. 'El otro lado de la cama' Emilio Martínez-Lazaro
3. 'Gangs of New York' Martin Scorsese
4. '8 millas' Curtis Hanson
5. 'El americano imposable' Phillip Noyce
6. 'Evelin' Bruce Beresford
7. 'XXX' Rob Cohen
8. 'Harry Potter y la cámara secreta' Chris Columbus
9. 'Los lunes al sol' Fernando León de Aranoa
10. 'Mortadelo y Filemon' Javier Fesser



DVD hartuenak

1. 'El señor de los anillos: las dos torres' Peter Jackson
2. 'El otro lado de la cama' Emilio Martínez-Lazaro
3. 'Gangs of New York' Martin Scorsese
4. 'XXX' Rob Cohen
5. 'Los Lunes a sol' Fernando León de Aranoa
6. 'Harry Potter y la cámara secreta' Chris Columbus
7. 'Mortadelo y Filemon' Javier Fesser
8. 'El crimen de padre Amaro' Carlos Carrera
9. 'Atrapame si puedes' Steven Spielberg
10. 'El pianista' Roman Polanski

Urtean HILDAKOAK

URTARRILA

- 4 Teodora Lizarbe Orgoiti (88)
- 8 Angela Okaranza Zuloaga (93)
- 11 Eugenio Zubizarreta Arregi(80)
- 28 Maria Elortza Mondragon (76)
- 29 Luis Francisco Merino De Garci-Baquero (65)

OTSAILA

- 20 Epifania Garmendia Antepara (89)
- 23 Benita Zabarte Iturriaga (92)

MARTXOA

- 23 Pedro Bengoa Gastiasoro (71)
- 26 Geronima Guisado Rodríguez (97)
- 28 Juan Murillo Valor (80)

MAIATZA

- 23 Maria Arkauz Murgiondo (89)
- 28 Raimundo Legorburu (83)

EKAINA

- 3 Julian Uriarte Eskibel (82)
- 16 Agustin Uribeetxebarria Okina (82)
- 17 Ana Galdos Arana (93)

- 23 Pablo Zuazabeitia Iza (77)
- 24 Timotea Errasti Gorostiza (92)
- 24 Alvaro Zubillaga Altube (71)
- 24 Maria Teresa Gorroño Arregi (75)
- 29 Bittori Ribera Etxeberria (86)

UZTAILA

- 16 Jesus Bruno Ojea (76)
- 17 Rosario Arenaza Zugasti (84)
- 20 Miguel San Juan Garai (78)

ABUZTUA

- 5 Pedro Urrutia Urrutia (83)
- 6 Esperanza Rivera Etxebarria (93)
- 12 Javier Iturbe Alvarez (60)
- 16 Ignacio Azkoitia López (85)
- 23 Julio Arranz Regidor (80)

IRAILA

- 3 Jose Luis Iribecampos Garaizabal (70)

URRIA

- 11 Agustin Urrutia Zubizarreta (66)
- 17 Ines Mateo Alejandro (90)

AZAROA

- 5 Angela Francisca Larrañaga Larrañaga (92)
- 10 Eusebio Arrese Idigoras (89)
- 15 Fernando Atxa Lezeta (56)

BIZILAGUN kopurua

6.285

Jaiotakoak

59

Hildakoak

34

Etorritakoak

138

Joandakoak

130

EGUNKARI salduenak

1. 'EL DIARIO VASCO'
2. 'Gara'
3. 'Berria'
4. 'Marca'
5. 'Deia'

ALDIZKARI salduenak

1. 'PRONTO'
2. 'Hola'
3. 'Qué me dices'
4. 'Entreviu'
5. 'Muy Interesante'

Egunik BEROENA

2003ko abuztuaren 4a

42 °C

Egunik HOTZENA

2003ko otsailaren 18a

-5 °C

Egunik EURITSUENA

2003ko maiatzaren 16a

70,9 L

ZORIONAK ETA URTE BERRI ON!

INDUSTRI HORNIDURAK


MEMESA

Tel.: 943 71 24 25 / Fax: 943 71 22 98
ARETXABALETAKO - ARRASATE - OÑATI



ONENA ETA TXARRENA

Urtean gorabehera eta kontu asko izan dira. Batzuk onak, beste batzuk erdipurdikoak, eta txarrak ere bat baino gehiago. Denok ditugu 2003. urtean gertatutako kontutxo eta pasadizoak. Hala, urteko onenaren eta txarrenaren inguruan hausnarketa txiki bat egin dezaten eskatu diegu hainbat herritarri. Zazpi izan dira aukeratuak, eta elkarte edo talde baten irudi direlako eskatu diegu euren iritzia. Hona hemen haiek esandakoak.



JOSE MARI SARASUA
Hiruax elkarte



IRATI PAGOAGA
Euskal Herrian Euskaraz

↑ 12 URTEKO LANA
Aretxabaletak herri solidarioa dela utzi du agerian. Dagoeneko 12 urte egin ditugu lanean Hirugarren Munduari laguntzeko, eta laguntzarik handiena herritarrek eurek eman dute.


↑ JENDEAREN ERANTZUNA
Euskalgintzak jasan dituen eraso guztien aurrean jendeak erakutsi duen erantzuna; egoera honen aurrean Korrika 13k ibilbide osoa gauzatu ahal izatea Maulen hasi eta Iruñera arte.

↓ GAZTEAK FALTA
Taldeak lanean jarraitzen du 12 urte pasa eta gero. Herritarren laguntzari esker indar handiz jarraitu ere; hala ere, batzorde lana egingo luketen gazteak falta zaizkigu.


↓ EUSKALGINTZARI ERASOAK
Otsailean *Euskaldunon Egunkaria*-ren itxiera, irailean eraso jarraipena, urrian EHEko kideok jasotako isunak. Oraindik ez daukagu euskarak behar duen marko juridiko egokirik.




LOREA SERRATO
Bai Euskal Herriari taldea



GERMAN ARRIOLA
Basotxo erretiratuen elkarte



MAITANE URRUTIA
Hezkuntza zinegotzia



MANOLO ZUBILLAGA
UDAKo txirrindulari taldea



MIRIAM PRIEGO-AINTZANE AIZPURUA
Loramendi dantza taldea

↑ HERRITARREN ERANTZUNA
Herritarren atxikimendua lortu dugu. EHNA ekimenak aukera ematen du kanpoko inposaketetatik libre euskaldunon eskubide zibil eta politikoen aitortpena aurrera eramateko.

↑ AKTIBITATE UGARI
Urterako gertatutako aktibitate guztiak bete ditugu: bidaiak, hitzaldiak... Aurten, gainera, senderismo ikastaroa eta 90 urtetik gorako bazkideei omenaldiak antolatu ditugu.

↑ JARRERA POSITIBOA
Herriko ikastetxe guztietako arduradunekin berba egin ostean, proiektu asko dituztela ikusi dut, eta guztiak aurrera eroan guran dabilzala. Oso jarraera positiboa aurkitu dut.

↑ LASTERKETETAKO GIROA
Antolatutako lasterketetan oso parte-hartze ona izan dugu, txirrindulari onak etorri dira eta giro ezin hobea sortu dute; gehienetan giroa sortu dutenak txirrindularien senideak izan arren.

↑ EGUNEKO GIROA
Haur Dantzarien Eguna datozen dantza taldeen artean sortzen den giroa ezin hobea da. Herriko taldean bertan zein kanpotik datozenekin batera oso harreman polita sortu ohi da.



↓ ESKUBIDEAK UKATU
EAJ/EAk eta Batasunak gehienoz onartu zuten EHNA tramitatze eta erabiltze konpromisoa ez dute aurrera eroan beste behin ere aretxabaletarren eskubideak ukatuz.

↓ BATZORDEKO KIDEAK HIL
Urte tristea izan da heriotzei dagokienez; izan ere, 22 bazkide hil dira; tartean, Alvaro Zubillaga elkarteko presidentea eta Mari Tere Gorroño batzordeko kidea.

↓ 0-3 TARTEKO PROIEKTUA
Oraindik hasi besterik ez naiz egin lanean, baina badakit 0-3 tarteari dagokion hezkuntza proiektuak lan handia emango didala. Ea lehenbailehen topatzen diogun konponbidea.

↓ JENDE FALTA
Inor ez dago txirrindulari taldeari jarraipenik emateko. Gehienok oso nekatuta gaude eta aurten utzi egingo dugu; hortaz, jende berria sartzen ez bada desagertu egingo da taldea.

↓ LAGUNTZA ESKASA
Laguntza txikia jasotzen dugu Haur Dantzarien Egunean. Kanpoko haurrei bazkaria emateko larri ibiltzen gara; seme-alabak dantzariak dituzten batzuek ere ez dituzte erosten etxera.

Indar batuketa nagusitasun osoz bidaiatzeko.

OPEL VECTRA

ONDO PASA GABONAK!

GARAJE NORTE S.L.

Basabe bidea A 1-3 ARETXABALETA
Tel.: 943 71 20 03 Faxa: 943 77 16 20


URTARRILA



"Herritarrok izan gaitzen zein eratako proiektua gura dugun erabakiko dugunak"

FELIS BELTRAN DE HEREDIA/ LANGILEA

2003-01-10



"Herritarrek libre daukate pleno aretora etortzea, baita hitz egiteko aukera ere"

ANJEL BERGARETXE/ ALKATEA

2003-01-17



Garai bateko Beroako lantokia botatzeko lanak hasi zituzten

Beroako lantoki zaharra botatzeko eraispen lanak urtarrilaren 2an hasi zituzten. Urvasco enpresa eraikitzailea aritu zen eraispen lan horietan. Bi hilabete inguru behar izan zituzten lantokia botatzeko lanak amaitzeko. Izan ere, lursail horretan cibro-zementua izeneko material bat zegoen, eta material hori birziklatzeko tratamendu berezia eman behar izaten da. /2003-01-10

HILEKOESALDIA

"Ilbeltza. Normalien berbiau ez dot erabilten urtarrila esateko, baina aurtenguz egoki dator"

IRATI PAGOAGA/ DINAMIZATZAILEA

2003-01-31

HILEKODATUA

314

PARTE-HARTZAILE IZAN ZIREN LITERATURA LEHIAKETAN

Loramendi Literatura Lehiaketara 314 lagun aurkeztu ziren. Aurreko urtean baino 239 parte-hartzaile gehiago. /2003-01-17


ERAKUSLEIHO LEHIAKETAKO IRABAZLEA

↑ Iaz, Gabonetan, Ana's jantzi dendak irabazi zuen erakusleihoko politenaren saria. Zorionak! /2003-01-10

APURKETAK URATS GAIN EGOITZAN

↓ Urats Gain zaharren egoitzaren atzeko aldean apurketak egin zituzten gazte batzuk; baita jendea iraindu ere. /2003-01-17

AIPAGARRI




IGOR ARENAZA
Futbolaria

Urtebetez Granadako Motril futbol taldean ibili eta gero, Igor Arenaza Euskal Herrira itzuli zen. Gaur egun Barakaldoko taldean jokatzen du. /2003-01-24



IBON ANTERO
Hiruatx elkartekoa

Ekudorrera kooperazio proiektu baten parte hartzerako joateko asmoa zuen Ibonek urtarrilean, Hiruatx, Mundukide eta Munduzabal elkarteen bitartez. /2003-01-17



IBAN DA SILVA
Udaltzaina

Udaltzain lanetan hasi zen 23 urteko aretxabaletarra. Laugarren udaltzaina hartzea erabaki zuen Udalak eta hainbat frogak egin ostean Iban hautatu zuten. /2003-01-17

UDAL AURREKONTUAK

Zazpi milioi eurotik gorako udal aurrekontua onartu zuten

Urtarrilaren 27an egindako osoko bilkuran onartu zuten 2003ko udal aurrekontua. Udaltzarra osatzen zuten taldeen artean tira-birak izan baziren ere, azkenean ez zen aurrekontua onartzeko arazorik egon. Hain zuzen ere, udaltzarra osatzen zuten Batasuneko eta

EAJ/EAko zinegotzien botoekin onartu zuten aurrekontua. PPko zinegotziak ezetzkoa eman zion eta PSE/EEko zinegotzia, berriz, ez zen bozketara azaldu. Hala, guztira, 2003. urterako 7.109.805 euroko aurrekontua zehaztu zuten zinegotziek. /2003-01-31

HIRIGINTZA

Deba errekaaren ezker aldeko etxebizitzaren plana onartu zuten

Udalak 2002an egindako azken osoko bilkuran, Deba ibaiaren ezker aldean -kirol etxearen atzeko aldetik hasi eta Lausitta auzorainoko tartean- 345 etxebizitza egiteko plan partzialaren aurrepena onartu zuten. Etxebizitza horietatik %65 babes ofizialekoak

izango direla zehaztu zuten. Eraikitza aldetik zein motatako etxebizitzak izango diren ere finkatu zuten. Batetik, txalet itxurakoak; eta, bestetik, hainbat solairutako etxebizitzak. Auzunea hegoaldeko iparraldera zeharkatuko duen bidea ere egingo dute. /2003-01-10

UDALA

Garzón epailearen errekerimendua jaso zuten Udalean

Garzónek bidalitako errekerimendua jaso zuten Udalean. Hainbat eskaera egiten zituen; tartean, HBko, EHko, eta Batasuneko zinegotziek parte hartutako osoko bilkuren aktak emateko. Eskatutakoa jasotzera etorri ziren, gainera, baina alkateak denbora gehiago behar zuela esan zien. /2003-01-31

J.J. ITURGINTZA


IRURE

URA
GASA
KALEFAKZIOA

Zorionak eta urte berri on!

MITARTE 15
ARETXABAETA

☎ 943 793 187



OTSAILA



"Bake hitzaren esanahia lausoa da. Batzuen bakea besteen gerra da"

AITOR AGIRIANO/ IKASLEA

2003-02-07



"Borroka politikoari ekiteko eta demokrazian sakontzeko unea da"

XABIER SARASUA/ IRAKASLEA

2003-02-14

HILEKOESALDIA

"Gizakiok hanka sartzen trebeak gara. Baita gure posturan burugogor tinko mantentzen ere"

EDORTA MENDIETA / LANGILEA

2003-02-28

HILEKODATUA

6.465

EURO GASTATU ZITUZTEN AZKEN ARATUSTEETAN

Kultura Sailak 6.465,5 euro gastatu zituen Aratusteetan. Domekan 2.612 euroko gastua egin zuen eta martitzenean 3.302koa. /2003-01-28



Plazako eraikina botatzen hasi ziren

Otsailaren erdialdera hasi ziren Herriko Plazako eraikina berritzen hasteko presaketak lanak, eta martxorako eraikina goitik behera botata zuten. Izan ere, uste baino askoz ere geroago hasi ziren eraikin hori eskola bihurtzeko lanak.

Aretxabaletako Udalak aspaldi utzi zion plazako eraikina Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari. Hark proiektua azkar egin bazuen ere, lanak esleitzeko orduan arazo ugari izan zituzten. Azkenean Altzibar enpresa eraikitzaileak hartu zuen ia lau milioi eta erdi euroko aurrekontua duten lanen ardura.

2004-2005 ikasturterako eraikina bukatuta egotea espero da. 12 ikasgelaz gainera, teknologia lantegia, areto handia, plastika gela eta liburutegia ere izango ditu Kurtzebarri eskolako eraikin berriak. /2003-02-21

GUTXITU PSIKIKOENDAKO ETXEA

Atzegi eta Aratz elkaratek gutxitu psikikoendako etxearen proiektua aurrera eramatea lortu zuten. /2003-02-14

KORRIKA 13 OSATZEKO PARTE-HARTZE ESKASA

Otsailaren 24an Korrika 13ko batzordea osatzeko batzarra egin zuten, eta hiru ordezkari baino ez ziren joan. /2003-02-28

AIPAGARRI



JOSU ZALOÑA
Ikaslea

Loramendi Euskara Elkartean dinamizatzailerik hasi zen. Orduetik hona geratu barik dabil kultura ekintzak antolatzen, eta berriak asmatzea du zeregin. /2003-02-21



MIRIAM URKIA
Euskaltzain urgazlea

UZEIn lan egiten duen aretxabaletarra euskaltzain urgazle izendatu zuten, beste 20 lagunekin batera. Hiztegi Batuko lantaldean aritzeagatik izendatu zuten. /2003-02-14



AITOR ALGAIDE
Xake jokalaria

Arlutz xake taldeak Euskal B ligan sekulako txapelketa egin ostean, Ohorezko Ligan jokatzeko txartela eskuratu zuen. Aitor pozik azaldu zen egindakoarekin. /2003-02-28

EUSKALTELEN ZUNTZ OPTIKOA

Euskaltel konpainia zuntz optikoa sartzen hasi zen

Otsailean hasi zen Euskaltel telefono konpainia zuntz optikoa sartzeko lanak egiten. Kirol etxearen inguruan eta Loramendi kalean hasi zituzten lanak.

Kaleak zulatu eta zuntza sartzeko ardura enpresa biri eman zion Euskaltelek: FOCI eta Amari. Zuloek gas hodiaren pareko

tamaina zuten: 50 cm zabal eta 80 cm sakon.

Lan horien ondorioz telefonoa, Internet eta telebista zuntz bidez heltzen dira gaur egun herriko hainbat etxetara. Bi pakete ezberdin daude: oinarrizkoa (18 telebista kate) eta digitala (50 telebista kate). /2003-02-08



Otsailean hasi ziren zuntz optikoa sartzen.

36KO GERRAN HILDAKOEI OMENALDIA


Gerran fusilatu zituztenak gogoratzeko batzordea sortu zuten

Gerra garaian hil zituztenen izen ona berreskuratzeko batzordea sortu zuten ibarrean. Ehun lagun inguru hil edo desagertu ziren; tartean, lau aretxabaletar. Laurak kanpoan lurperatuta daude. Aretxabaletan bertan ere hil eta lurperatu ei zituzten hainbat soldadu. /2003-02-07

HAIZE ZAKARRA

Otsail amaieran ibili zen haizeak kalte ugari eragin zituen

Otsail amaieran haize benetan zakarra ibili zen herrian eta makina bat kalte eragin zituen. Arbizelai parean zuhaitz bat, futbol zelaiko markagailua, kirol etxeako kristalak, teilatuetako teilak, lorontziak eta balkoietako antenak bota zituen, besteak beste. /2003-02-28



ekin

fisioterapia zentroa

- REHABILITAZIOA
- MASAJE TERAPEUTIKOA
- AKUPUNTURA
- OSTEOPATIA

Belorrieta 6-7
Tlfoa: 943 79 95 64
20550 ARETXABALETA

Zuhaitzek, Andonik eta Maitek zorionik beroenak opa dizkizute aretxabaletar guztioi !!

Lagun Aro, Sanitas, Adeslas,...

MARTXOA



"Gerra guztietan bezala, ez dago garaile eta galtzailerik; denok galduko dugu"

LORE ABARIK/ LANGILEA

2003-03-21



"Herrian barneratzeko garrantzitsua dela uste dut euskaraz jakitea"

SILVIA MONICA PAPI/ ARGENTINARRA

2003-03-14

HILEKOESALDIA

"Aretxabaletan gaueko giroa asko jaitsi da; zapatuetan, esaterako, %50 jaitsi da"

JULEN BARANDIARAN/ TABERNARIA

2003-03-21

HILEKODATUA

238

EURO LORTU ZITUZTEN KORRIKAKO SALTOKIAN

Martxoaren 22an jarri zuten salgai Korrika 13ko materiala. Guztira, 238,20 euro batzea lortu zuten. /2003-03-28



Mozorro ikusgarriek girotu zituzten aurtengo Aratusteak

Martxoaren 2an (domeka) ospatu zituzten aretxabaletarrek Aratusteak. Urtero moduan, izugarriko giroa sortu zuten herriko kaleetan. Mozorro ikusgarriak ikusteko aukera izan genuen, gainera. Urteroko Mozorro Lehiaketan *Egiptiarrak* eta *Asterix eta galiarrak* izan ziren nagusi. Martitzenean, berriz, eskolako umeez girotu zituzten herriko kaleak. /2003-03-07

BEIRA BATZEKO KANPAINA

↑ Debagoieneko Mankomunitateak ostalaritzako beira batzeko ekimena jarri zuen abian. /2003-03-14

ARATUSTEETAN ETXAFUEGOAK JAURTI ZITUZTENEI

↓ Aratusteetan, domeka gauean, etxafuego eta bomba ugari bota zituzten Mitarte kale inguruan. /2003-03-07

AIPAGARRI



ARANTZAZU ARROIABE
'Egunkaria'-ko langilea

Euskaldunon Egunkaria itxi ostean, errealitate bihurtu den proiektua bideratzeko lanetan ibili zen. Harpidetzaz eta salmentaz arduratu zen. /2003-03-21



ASIER BENGOA
Txirrindulari taldekoa

Dorletako Ama Txirrindulari Eskolako txirrindulariek martxo hasieran hasi zuten denboraldia, eta Asier entrenatzaile ibili zen eurkin. /2003-03-14



MARKEL URIARTE
Trialsina

Udala auzoan egindako probarekin bukatu zuten Gipuzkoako Trialsin Txapelketa. Markel bigarren geratu zen Udalan; baita Gipuzkoako Txapelketa ere. /2003-03-21

ERREPIDEAK

Arkarazoko errepidea konpontzeko dirua onartu zuen Udalak

Martxoaren 10ean egindako osoko bilkuran onartu zuen udalbatzarrak Arkarazoko errepidea konpontzea. 115.000 euro hitzartu zituen horretarako. Otsailaren erdi inguruko euri-jasek apurtu zuten Arkarazo auzora doan errepidea, eta izugarriko zartadurak atera zitzaizkion. /2003-03-21

LUR ANTOLAMENDUA

Lurralde Zatiko Planari alegazioa aurkeztu zion Udalak

Eusko Jaurlaritzak eta Foru Aldundiak aldaketa ugari proposatu zituzten ibarrean datozen urteetarako. Aipagarrienak: Kurtzebarriko maldan egin gura dituzten 400 etxebizitza eta Urkulu-II urtegia. Txostenari alegazioa aurkezteko asmoa azaldu zuen Udalak. /2003-03-14



Urkulu dagoetan uzteko asmoa azaldu zuen Udalak.

EUSKARA

'Euskaldunon Egunkaria' ren alde batu ziren herritarrak

Euskaldunon Egunkariaren itxiera salatze hainbat ekitaldi egin zituzten herrian. Batetik, batzorde bat osatu zuten eta *Egunkariaren* dirua batzeaz gain salaketa ekitaldiak egin zituzten; bestetik, kale agerraldiak eta lan uzteak egin zituzten herritarrek martxoan zehar. /2003-03-14

Laborantza tresnak
Ongarriak- Haziak

Mitarte 7, behea
ARETXABALETA
Tel.943 77 00 33 / 79 42 56



FELIX PAGALDAY

Zorionak eta urte berri on!

APIRILA



"Egunero 'Egunero' erosten jarraituko dou askok eta askok"

IRATI PAGOAGA/ DINAMIZATZAILEA

2003-04-04



"Gaur egun norbait eta zerbait izateko horrelako saioetan agertu behar da"

ARANTXA JAKA/ IRAKASLEA

2003-04-16

HILEKOESALDIA

"Korrika ibili garenok egunero euskaraz jarduten ez badugu, korrika ibiltzeak zer balio du?"

XABIER SARASUA/ IRAKASLEA

2003-04-11

HILEKODATUA

100

SINADURA BATU BEHAR IZAN ZITUZTEN ARETXA-KOEK

Aretxa plataformak 100 sinadura batu behar izan zituen hauteskundeetan parte hartzeko. Hilaren 8rako lortu zituzten. /2003-04-11



Ehunka lagun batu ziren apirilaren 7an Korrikaren alde egiteko

Apirilaren 7an, 18:00ak inguruan pasatu zen Korrika Aretxabaletatik. Ehunka lagun batu ziren herrian Korrikarekin bat egin eta euskararen aldeko aldarrikapena egiteko. Mitarte, Durana eta Otalora kale inguruetan sumatu zen herritar kopuru handien. Ume zein nagusi, guztiek erakutsi zuten korrika egiteko sasoia, eta asko Arrasateraino joan ziren. /2003-04-11


IDATZIEN GAINEKO LIBURUXKA

↑ Debagoieneko udaletako euskara zerbitzuek kaleratu zuten, eta Aretxabaletan etxez etxe banatu zuten. /2003-04-11

ESPALOI ESTUEI

↓ Hainbat herritar kexatu dira Mitarte kalean dagoen espaloia dela eta. Justu-justu bi pertsona kabitzen dira. /2003-04-16

AIPAGARRI



ANJEL BERGARETXE
Alkatea

Agintaldia bukatzeko hilabete falta zitzaiola, Anjel Bergaretxe alkateak azken lau urteetako balorazioa egin zuen; balorazio positiboa orokorrean. /2003-04-04



NEREA ELORTZA
Gazte-lekuko begiralea

Gazteek egindako eskaerari erantzuna emateko gazte-lekua abian jartzea erabaki zuen Udalak. Nerea Elortza hautatu zuten begirale lanetarako. /2003-04-11



AKIZU ETA GARDOKI
Pilotariak

Akizu eta Gardoki pilotari aretxabaletarrek Zaramagako Pilota Txapelketako finala jokatu zuten. Partiduan ondo ibili arren, ezin izan zuten irabazi. /2003-04-11

ETXEBIZITZAK

Etxabeetan etxebizitzak egiteko ordenantza onartu zuen Udalak

Martxo bukaeran egin zuten ohiko osoko bilkuran, etxabeetan etxebizitzak egiteko ordenantza aurkeztu zuten; baita onartu ere. LKS Aholkularitzak Aretxabaletako etxabeen gaineko azterketa egin zuen, eta 92 etxebizitza egin daitezkeela ondorioztatu zuen.

Etxebizitzak gainean sortu

ohi den espekulazioa ikusita, Udalak ondo lotu gura izan zituen etxabeetan egingo dituzten etxebizitzak gaineako kontuak. Ondorioz, ezin izango dute etxebizitza edozein etxabetan egin; hainbat baldintza bete beharko dituzte: argitasun eta aireztapen egokiak, esaterako. /2003-04-04

HEZIKETA

Galdategi Eskola egiteko lurrak eman zituen Udalak

Aretxabaletako Udalak lursaila eman zion Eusko Jaurlaritzari, eta hau Galdategi Eskola egitera konprometitu zen. Aretxabaletako Institutuak, bestalde, kudeatzeko erantzukizuna hartu zuen.

Galdategi Eskola egingo du Eusko Jaurlaritzak Udalak emandako lursail horretan. 3.000 metro

koadro eman zizkion Udalak eta horietatik 600 dira eraikigarriak. Galdaketan edo fundizioan trebeak izango diren langileak prestatuko dituzte bertan. Hain zuzen ere, ibarreko enpresek duten eskaera asetzeko egin gura dute eskola hori, eta urte biren bueltan eraikiko dute. /2003-04-11

INTERNET

Apirilean jarri zituzten abian KZGuneko ordenagailuak

Martxoaren 28an inauguratu zuten KZGunea. Alkatea, KZGuneen arduraduna eta zinegotzi bi egon ziren inaugurazio ekitaldian. 10 ordenagailu jarri zituzten Interneten gaineko ikastaroak emateko; edozelan ere, apirila arte ezin izan zituzten ordenagailuak abian jarri. /2003-04-04

ARQUERO
CONSTRULAN S.L.
ERAIKUNTZAK ETA INDUSKETAK

Basabe Industrialdea 4 - EO -11 Aretxabaleta

943-790151 608-772867 679-455764

Urte Berriaren Sarreran
CONSTRULAN S.L. ARQUERO-KO
LANGILE GUZTIEK OPA DIZKIZUETE
JAI ZORIONTSUAK
ETA URTE BERRION!

MAIATZA



"Ikusleok esaten denarekin baino gehiago gogoratzen gara ikusten dugunarekin"

RESU ABASOLO/ IRAKASLEA

2003-05-16



"Bide honetatik jarraituta, urte batzuk barru ez dugu inor kritikatzetik izango"

EDORTA MENDIETA/ LANGILEA

2003-05-09

HILEKOESALDIA

"Realak txapela lortuko duen edo ez ikusteko dago, baina oraingoan esku artetik ihes egitea..."

AITOR AGIRIANO/ IKASLEA

2003-05-30

HILEKODATUA

115

LAGUN GEHIAGOK IZAN ZUEN BOTOA EMATEKO AUKERA

Azken hauteskundeetan baino 115 herritar gehiago izan zuen botoa emateko eskubidea. 5.246 lagunek, hain zuzen. /2003-05-09



Giro bikaina Euskararen Egunean eta Ojala-Zelaiko erromerian

Eguraldi bikaina izan zen Euskararen Eguna eta Ojala-Zelaiko erromeria ospatzeko. Hori horrela, herritarrek gustura hartu zuten parte, eta paregabeko giroa sortu zuten. Zapatu goizean bertsolariak izan ziren protagonista. Herri bazkarian jende ugari batu zen, eta arratsaldean dantzaldia izan zuten umeez. Ojala-Zelain, ostera, Gorritiren animaliak eta ura izan ziren protagonista. /2003-05-23


HOGEI MILA EUROTIK GORAKO SARIA

↑ Maiatzaren 3an, 20.509 euroko saria irabazi zuen lagun batek loteriarekin. Zorionak! /2003-05-09

KARTELAK, EUSKARAZ ERE BAI

↓ Gaztelania hutsez idatzita zeuden horma-irudi eta kartelak jarri zituzten. Euskaraz ere bai, mesedez! /2003-05-09

AIPAGARRI



XABIER MENDIZABAL
Udaleko idazkaria

Hamar urte daramatza Udaleko idazkari lanetan eta aurtengo maiatzaren udaletarako eta Biltzar Nagusietarako hauteskundeak antolatzea tokatu zitzaion. /2003-05-09



ETXABE-MAR
Realeko jokariak

Real Sociedad futbol taldearekin hainbat txapelketatan hartu zuten parte 11 urteko Beñat Etxabek eta Gillen Marrek. Maiatzaren Logroñon jokatuta zuten. /2003-05-09



ARRITXU OLIDEN
Alkatagia

Udal hauteskundeetan EAJ-EA koalizioa gailendu zen herrian. Koalizioak Arritxu Oliden zuen zerrenda-buru; berari eman zioten botoa herritar askok. /2003-05-30


HAUTESKUNDEAK

Udal hauteskundeak izan ziren maiatzaren 25ean

Maiatzaren 25ean udaletarako eta Batzar Nagusietarako hauteskundeak egin ziren Euskal Autonomia Erkidegoan. Aretxabaletan EAJ-EA koalizioak jaso zuen boto kopururik handien: 1.298, hain zuzen. Hurrengoa Aralar alderdi berria izan zen, 875 botorekin; legez kanpo utzi zuten

Aretxa Plataformak 642 boto lortu zituen; PSE-EEK, 399; PPK, 231; eta Ezker Batuak, 235.

EAJ-EA koalizioa gailendu arren, gorakadarik nabarmenena Ezker Batuak egin zuen 1999an baino 90 boto gehiago jaso zituelako. Gainerako alderdiek behera egin zuten zertxobait. /2003-05-31



Jende ugari hurbildu zen bozkatzera.

ERREPIDEAK

Areantza auzorako bidea konpondu zuen Foru Aldundiak

Gipuzkoako Foru Aldundiak aspaldi egin zuen Udalarekin hitzarmena Larrino eta Areantzara doazen bideak konpontzeko. Larrinora doan bidea berri eta gero, Areantzako errepidea konpontzeko lanak hasi zituzten maiatzaren bukaeran. /2003-05-09

WEBGUNEAK

Herriaren eta Udalaren informazioa duen webgunea sortu zuten

Aretxabaletaren gaineko informazio guztia batzen duen webgunea jarri zuen abian Udalak www.aretxabaleta.com helbidean. LKS enpresak egin zituen aholkularitza lanak, Agora taldeak diseinua eta Goienak edukiak sartu zituen. Udalaren informazioa ere jarri zuten. /2003-05-20

URTE BERRI HONETARAKO ZUK JARRI HELBURUAK

eski denboraldirako prestakuntza fisikoa!!

Zerbitzuak:

- Banakako entrenamenduak
- Aerobik / Step
- Aerobik txiki (8-12 urte)
- Power Dumbell
- Hot Cycling (Spinning)
- Mantentze Gimnasia
- Senior Gimnasia
- Gimnasia Terapeutikoa
- tai-chi
- Aikido

Zerbitzu osagarriak:

- Etengabeko rekonozimenduak
- Dietista
- Solarium
- Sauna
- Kirol errota denda
- Sabeleko Dantza
- Aretoko Dantzak / Salsa

Guzti hau zure etxetik gertu eta kalitadedun Kirol instalakuntzan.

www.zainduz.com



Zainduz

Ilargi Plaza, 6 behea
Tel. 943 71 27 92
20560 ARETXABALETA (Gipuzkoa)

e-mail: zainduz@euskalnet.net

ETA
GUK
BITARTEKOAK



**Aretxabaletako Udalak herritarroi gabon zoriontsuak
opa dutzue eta urte berri zoriontsuena.**



EKAINA



"Jentiek udaltzaiñokin ordainketan dau hasarreketan danién"

RITXI BRIÑAS/ UDALTZAINA
2003-06-20



"Zenbat jende dabilen motxila bizkarrean hartu eta munduan zehar..."

IRMA ARABAOLAZA/ BIDAIRIA
2003-06-13



Arritxu Oriden izendatu zuten alkate, baina protestak izan ziren nagusi

Ekainaren 14an eratu zuten udalbatza berria. Alderdi bakoitzak bere alkategaiari eman zion botoa eta, espero zen moduan, Arritxu Oriden izendatu zuten alkate. Herritar ugari hurreratu ziren osoko bilkuren aretora, Aretxa plataformari botoa eman ziotenak gehienak, eta protestak eta tentsioa izan ziren nagusi. "Lapurrak!", "putxerazoa!" eta antzeko oihuak entzun ziren. /2003-06-20

HILEKOESALDIA

"Orain 25 urte sortu zen Basotxo elkarte, eta ordutik hona, ile apaindegia eskatu du Zuzendaritzak"

ANTONIO DIEZ/ BASOTXOKO KIDEA
2003-06-27

HILEKODATUA

18.000

EURO BATU BEHAR ZITUZTEN 'BERRIA'-RI LAGUNTZEKO

Berria egunkaria kaleratzeko 18.000 euro batu behar zituzten Aretxabaletan. Ekainaren erdirako 6.000 zituzten batuta. /2003-06-13

UDA FUTBOL ELKARTEA

↑ Hainbat arazori aurre eginda UDAk futbol denboraldia bukatu zuen. Ederto ibili ziren hainbat talde. /2003-06-06


AMUARRAINAK HILDA URKULUN

↓ Urkuluko urtegian hainbat amuarrain hilda agertu ziren. Antza, birpopulatzeko era xelebrea erabili zuten. /2003-06-27

AIPAGARRI



BITORIANO ARANBURU
Abadea



MIKEL ARROIABE
Irakaslea



UNAI ETA IBON ERRASTI
Pilotaria

Apaizgoaren urrezko ezteiak bete zituen Bitorianok. Hori dela eta omenaldi beroak egin zituzten herritarrek ekainaren 15ean eta auzotarrek uztailean. /2003-06-06

Ekainaren 8an Araba Euskaraz ospatu zuten Oionen. Mikel Arroiabe aretxabaletarra bertako irakaslea da, eta ekitaldia antolatzeke ardura izan zuen. /2003-06-06

Debarroko Pilota Txapelketa irabazi zuten Errasti anaiek. Arrasatearren kontra jokatu zuten finala eta, norgehiagoka ikusgarria eginda, 22-20 irabazi zuten. /2003-06-20

KIROLAK

Aratz elkarteko hiru igerilarik bost domina irabazi zituzten

FEVAS elkarteak igeriketa topaketa antolatu zuen Donostian. Aretxabaletatik Aratz elkarteko hiru kirolari joan ziren txapelketan parte hartzera: Iker Arexolaleibar, Juan Carlos Barquero eta Iñaki Iturbe. Pedro Balentziagak entrenatzen dituen kirolariak dominekin itzuli ziren etxera. Juan

Carlosek hiru eskuratu zituen eta Iñakik eta Ikerrek bana.

FEVAS elkarteak urtero antolatzen ditu urritasun fisiko eta psikikoak dituzten kirolariendako kirol topaketak. Donostiako Altzan jokatu zuten aurtengo igeriketa txapelketa, eta 100 lagunetik gora batu ziren bertan. /2003-06-13



Aratzeko hiru igerilariak dominekin.

SAN JUANAK

Sua eta tantaia protagonista San Juan bezperan

Herritar ugari hurreratu ziren plazara urteko gau motzenez, eta plaza txiki geratu zitzaion. San Juan kantua abestu zuten bertan bildutakoek. Gauerdian Santa Ageda mutilek tantaia jaso zuten. Aurtun 20 minutuan igo zuten, eta Euskaldunon Egunkaria eta Real izan zituzten gogoan. /2003-06-27

KIROLA

Erregionaleko bigarren mailako futbol taldea mailaz igo zen

UDAKo erregionaleko bigarren mailako futbol taldeak lehenengo mailara igotzea lortu zuen. Azken partidura arte, gainera, ezin izan zuten erabaki. Ekainaren 1ean jokatu zuten Eibariko Gazteak taldearen kontra, eta aretxabaletarrak nagusitu zitzaizkien. /2003-06-06



Barruko eta kanpoko lorategiak zaindu eta sortzen ditugu

Ureztatze-sistema automatikoak instalatzen ditugu

Zorionak eta urte berri on guztioi!

Basabe poligonoa D-2-1
117 posta kutxa ARETXABALETAN
Telefonoa eta faxa: 943 79 78 45 eta 616 96 57 98

IOSU

harategia taberna

Urdaitegia-gozotegia
Kroasantegia
Gertatutako janariak

Mitarte 1 Tel. 943 77 03 08



Javik eta Juanek gabon zoriontsuak opa dizkizute!



KURTZEBARRI
ESKOLA



KURTZEBARRI ESKOLA

Santa kurtz 19
ARETXABALETA


Tel./faxes: 943 79 00 49

Posta-e: kurtzebarrieskola@euskalnet.net

Web: www.goieskola.net



KURTZEBARRI
BHI



KURTZEBARRI BHI

Santa kurtz 19
ARETXABALETA

Tel./faxes: 943 79 57 40

Posta-e: 012945aa@hezkuntza.net

Web: www.goieskola.net

Arrasate
aretxabaleta
INSTITUTUA



ARRASATE/ARETXABALETA
INSTITUTUA

Etzebarri auzoa z/g
Tel.: 943 79 79 00


Faxes: 943 79 09 55

Posta-e: ia@iaretxabaleta.com

Web: www.iaretxabaleta.com

ZORIONAK

PHOTOSYNTHESIS



a r g a z k i l a r i t z a

Gabon

zoriontsuak

izan!

Herriko plaza 5 Tel.: 943 79 79 67
Aretxabaleta

Sekulako eskaintza! Kamera digitalak 139 €

Aretz

taberna



- .Gosariak
- .Pintxoak
- .Plater konbinatuak
- .Otartekoak
- .Pizzak
- .Hanburbesak
- .Sandwichak
- .Oilasko erreak
- .Kazuelatxoak

ONDO HAS DEZAZUELA URTE BERRIA!

ORDUTEGIA:
Astelehenetik ostiralera
9:00etatik zabalik
Ahebukaeretan
11:00etatik aurrera

Markole 5, behea Tel.: 943 79 14 67 ARETXABAleta

UZTAILA



"Drogen gaiaren inguruan informazio gutxiegi eta debeku gehiegi dago"

AITOR AGIRIANO/ IKASLEA

2003-07-04



"Zergatik hainbeste etxebizitza berri, 300 hutsik daudenean?"

RESU ABASOLO/ IRAKASLEA

2003-07-18

HILEKOESALDIA

"Ea irailan hobeto egiten dugun, eta gauzak garbiago ikusten hasten garen. Herriaren mesederako"

ANJEL BERGARETXE/ ALKATE OHIA

2003-07-18

HILEKODATUA

186

UME IBILI ZIREN AURTEN UDALEKU IREKIETAN

Uztailaren 1ean hasi ziren Udaleku Irekiak eta aurten 186 umek eman zuten izena, aurreko urtean baino zerbait gutxiago. /2003-07-11

JOLASPARKEKO HOBEEKUNTZAK

↑ Gipuzkoa plazan konponketak egin zituzten; zoru biguna jarri zuten txintxaunen oinarrian. /2003-07-18

IBAIA, ZIKIN-ZIKIN

↓ Bizikleta bat agertu zen. Deba ibaian. Jendeak oraindik ez du ibaia garbi behar dugun kontzientziarik. /2003-07-11

AIPAGARRI



SEBASTIAN URIBETXEARRIA
Marianista

Dagoeneko 30 urte daramatza marianista aretxabaletarrak Kolonbiako Guatika eskualdean proiektuak garatzen. Uztailean herrira etorri zen bishita. /2003-07-18




ANTXON ANDUAGA
Txirrindularia

Ederto amaitu zuen denboraldia txirrindulari gazteak. Lehenengo mailako kateekin ibili zen, eta denboraldiko itzuli gehienak amaitzea lortu zuen. /2003-07-11



IÑAKI SAGASTA
Musikaria

Foru Aldundiak antolatutako Gaztemaniak lehiaketara maketa aurkeztu zuen Iñaki Sagastak. Bakarlari gisa aurkeztu arren, taldea osatu gura zuen. /2003-07-11



Euskal Presoen aldeko astea

EPEH Aretxabaletako plataformak Euskal Presoak Euskal Herrira Astea antolatu zuen. Uztailaren 15etik 19ra bitartean hainbat ekitaldi antolatu zituen herrian.

Ekitaldien artean film emanaldia, presoen ikasketen gaineko kafe tertulia, bertso antologia eta Julen Cobos aretxabaletarrak abesten duen Bat Gehio taldearen kontzertua. Egunik garrantzitsuena zapatua izan zen: lehenengo, Kurtzebarrira egin zuten mendi irteera eta eguerdian herri bazkarirako batu ziren Mitarte plazan.

Euskal Presoak Euskal Herrira plataforma 1999ko apiril inguruan sortu zuten Aretxabaletako hainbat taldek, ETAK su-etena egin zuten. Helburuak ziren herritarrak sentsibilizatzea eta presoen aldeko atxikimenduak lortzea. /2003-07-18

KIROLA

Uriarte anai-arrebek trialsin txapelketa polita egin zuten

Ekainaren 28an amaitu zuten Mar- kel eta Nagore Uriarte anaiek Open Norte trialsin txapelketa, Gastei- zen. Orduan ere maila ona erakutsi zuten Larrinoko anai-arrebek, eta, hala, sailkapenean aurreneko postuetan gelditu ziren: Markelek gaztetxoan mailan jokatu zuen eta

bigarren postuan geratu zen, Jon Areitioren ostean; Nagore, bestalde, hirugarren gelditu zen emakumezkoen mailan. Denboraldiko azken txapelketa izan zuten aipatutakoa, eta oporrak hartu bazituzten ere, entrenamendu saioekin segitu zuten. /2003-07-04

UDAL GOBERNUA

EAJ-EAk, Aralarrek eta IU-EBk osatu zuten Gobernu batzordea

Uztailaren 14an egin zuten osoko bilkuran osatu zuten hurrengo lau urteotarako Gobernu batzordea: EAJ-EA koalizioa, Aralar eta Ezker Batuaren artean, hain zuzen.

Batzorde bakoitzeko ardura- dunak ere izendatu zituzten: hiri- gintza Jaime Muxikak hartu zuen,


ingurumena Jose Anjel Antxiak, ogasuna Galo Sanchezek, hezkun- tza Maitane Urrutiak, kirola Mikel Uribetxebarriak, gizarte ongizatea Iñaki Sanz-Azkunagak, euskara eta kultura Xabier Sarasuak eta segurtasuna eta antolamendua Fe- lis Beltran de Herediak. /2003-07-18

XAKEA

Elorrioko Txapelketa irabazi zuen Arlutz Xake Taldeak

Uztailaren 5ean Arlutz Xake Tal- deak Elorrioko Xake Bizkorreko Txapelketa irabazi zuen. Joseba Altube, Esteban Romero, Aitor Alcaide eta Fran eta Andoni Miguel izan ziren txapelketan. Guztiek irabazi zituzten euren partidak, eta Arlutz taldea lehen postuan geratu zen. /2003-07-11

Aretxabaletako



**Gabon zoriontsuak
eta
urte berri on guztioi**



ABUZZTUA



"Jaixetan, gabien gaztiendako zerbait falta izen dala uste dot"

IRAIA AGINAGALDE/ IKASLEA

2003-09-05



"Jaixetan oso jente gutxi ibilli zala pentsau jat. Jai pobriek izen zien"

ANTONIO GUISADO/ TABERNARIA

2003-09-05

HILEKOESALDIA

"Andramaixetan antzerkia ikusteko arazoak eduki genituen, leku egokirik ez dago-eta..."

ANABEL DIEZ/ KULTURA TEKNIKARIA

2003-09-05

HILEKODATUA

50

KILO ARROZ ERABILI ZITUZTEN ANDRAMAIXETAKO PAELLAN

Horrekin batera 65 kilo oilasko eta 18 litro olio erabili zituzten; saiheskia, ganbak eta barazkiak ere bazituen paellak. /2003-09-05



Lasaitasuna eta giro polita izan ziren nagusi Andramari jaietan

Jai lasaiak bizi izan zituzten opor lekutik bueltan etortzea erabaki zutenek eta herrian geratutakoek. Andramari bezperan, Ikurrinari agurra egiterakoan, *No Apartheid* zioten karteletan azaldu zen talde bat, eta txistu egin zioten alkateari. Gainerakoan ez zen aparteko istilurik gertatu. Jai batzordeak antzerkiaren aldeko apustua egin zuen aurtengo Andramaixetan. /2003-09-05

ELVI BENTRILOKUA

↑ Euskaraz egiten duen Elvi bentrilokuoak Andramaixetan ikuskizun bikaina eskaini zuen Herriko Plazan. /2003-09-05

PAELLA, ETXERA

↓ Andramaixetan egiten duten paella dekalde izaten dela-eta, batzuek etxera eramateko aprobetxatu zuten. /2003-09-05

AIPAGARRI




KATALIN ANTZIA
Ikaslea

Katalin Antxia izan zen aurtengo Andramaixetako Kartel Lehiaketako irabazlea. Kolore gorriko kartel deigarria egin zuen Katalinek jaientarako. /2003-07-18



FELIS BELTRAN DE HEREDIA
Zinegotzia

Herri antolamendu eta segurtasun zinegotziaren esanetan, jai lasaiak izan ziren; ez zuten aparteko arazorik izan segurtasunari dagokionez. /2003-09-05



GARIKOITZ ITURBE
Txosna Batzordekoa

Txosna batzordeak txosna-gunea antolatu zuen jaietan. Garikoitz Iturbe kidearen esanetan, batzordeak antolatutako ekintzetan oso giro ona izan zuten. /2003-09-05

MUS TXAPELKETA

Mus Txapelketa Armendiak eta Irurek irabazi zuten

Urtero moduan Mus Txapelketa egin zuten Herriko Plazan. Aurtengo 42 bikote hurreratu ziren eta, azkenean, Jon Armendia eta Aitor Irure izan ziren txapeldun. Bigarren postuan Felipe Hernandez eta Manolo Urtubi geratu ziren. Irabazleek txapel bana eta kopa irabazi zituzten. /2003-09-05

ANTZERKIA

Hainbat antzerki ikuskizun izan ziren Andramaixetan

Bezperan izan ezik, gainerako egun guztietan egon ziren antzerki ikuskizunak, umeendako zein nagusiendako. Trapu Zaharra, Hortzmuga eta Hankagorri taldeak etorri ziren. *Kutsidazu bidea*, *Ixabel* antzezlanak eskaini zuten frontoian, eta asko eserleku barik geratu ziren. /2003-09-05



Umeendako zein nagusiendako antzerkiak egon ziren aurtengo Andramaixetan.

KOADRILEN EGUNA

Giro paregabea izan zuten Andramari hirugarrenean

Abuztuaren 17an kamiseta koloretuak jantzita girotu zuten eguna herriko hainbat koadrilak. Herri bazkarian, bestalde, jende asko batu zen, bostehun lagun inguru, eta bazkalosteko Elvi bentrilokuoaren ikuskizunak gazteen zein nagusien barreak eragin zituen. /2003-09-05

Urte berri on guztioi!

LEIBAR

arrandegia



Mitarte Kalea 1 Loramendi 1
Tel.: 943 77 13 79 Tel.: 943 79 18 33
Aretxabaleta

IRAILA



"Preferente mailan, urtetik urtera, gero eta talde hobeeek jokatzen dute"

IGOR GORDOBIL/ ENTRENATZAILEA

2003-09-19



"Talantea ez da gauzak planteatzeko orduan soilik agertzen den itxura"

FERNANDO BERRIZBEITIA/ IRAKASLEA

2003-09-19

HILEKOESALDIA

"Askatasunaren ideia ez da lau gazte zororena, hori erakusten dute 100 urte dituzten abestiek"

ANJEL BARANDIARAN/ ZUZENDARIA

2003-09-12

HILEKODATUA

393

BAZKIDE ZITUEN LORAMENDI EUSKARA ELKARTEAK

2003ko irailean Loramendi Euskara Elkarteak 393 bazkide zituen. Bazkide berriak lortzeko kanpaina hasi zuen orduan. /2003-09-19



San Migel jaiak ospatu zituzten

Eguraldia lagun, giro polita izan zen nagusi aurtengo San Migel jaietan. Zapatuan egin zuten produktu ekologikoen azokak eta artisauen postuek jendea barra-barra ekarri zuten Durana kalera: gaztak, barazkiak, ogiak, saskiak, harrizko irudiak... Guztia zuten salgai baserritarrek eta artisauak. Arratsaldean, ostera, Bixente Etxeandia izan zen protagonista. Ezusteko bat baino gehiago gertatu zizkieten, eta hunkitu egin zuten UDAko presidentea.

Domekan kirolari egin zioten tartea: txirrindulari gazteendako IV. Udazkeneko Criteriuma jokatu zuten lehenengo, eta herri kirolak izan zituzten gero. Euri zaparrada tokatu zitzaizen parean azken horiei, baina erakustaldi polita egin zuten. Jaiak agurtzeko euskal giroko ikuskizuna egin zuten. /2003-10-03


EDUKIONTZI ZURIEN ARRAKASTA

↑ Mankomunitateak arropa jasotzeko edukiontzi zuriak jarri zituen herrian; izugarrizko arrakasta izan zuten. /2003-09-19

AUTOMOBILENDAKO GUNE BELTZA


↓ Beroako autobus geltoki parean dagoen bidegurutzean apartutako autoek ikuspegia kentzen dute. /2003-09-12

AIPAGARRI



JESUS ORTIZ DE URBINA
Parrokoa

Iekoran, Errioxako Araban, jaio zen, eta Zumarragatik etorri zen Aretxabaletara. Irailaren 7an Aretxabaletako eta Eskoriaztako parroko izendatu zuten. /2003-09-12



FELIX MADINABEITIA
Ile apaintzailea

Gizonezkoen ile apaintzaile lanetan 46 urte egin ostean, erretiratu egin zen irailean. Herriko eta auzoetako bezero guztiak umezurtz utzi zituen. /2003-09-19



BIXENTE ETXEANDIA
Omendua


Aretxabaleta Kirol Elkarteak presidentea Bixente omendu zuten aurtengo San Migel jaietan. Futbolaren eta UDAREN alde egindako lana eskertu zioten. /2003-09-26

KURTZEBARRIKO EGUNA

Kurtzebarriko gurutzearen 75. urteurrena ospatu zuten

Kurtzebarriko gurutzearen 75. urteurrena ospatzeko hainbat ekitaldi antolatu zituen Murruxiko Mendizale Elkarteak. Mendi Astea egin zuten lehenengo: diapositiba emanaldiak, hitzaldiak eta argazki erakusketa jarri zituzten. Irailaren 13an, gauean, zapatua, Kurtzebarriko gurutzea argiztatu

zuten. Gau hartan egin zuen eguraldi ederrari esker arazorik gabe ikusi zuten gurutzeko argia herriatik. Ospakizun handiena irailaren 14an egin zuten. Herritar ugari hurreratu zen Kurtzebarri, meza entzun zuten eta ondoren, Elixabarriko zelaietan geratu zen jendea bazkaltzen. /2003-09-19



Jende asko gerturatu zen tontorrera.

MARIHUANA LANDAKETA


Ertzaintzak marihuana landaketa bat atzeman zuen Errekabarrenean

Irail erdi aldera 26 urteko aretxabaletarra atxilotu zuen Ertzaintzak, udaltzainen laguntzarekin. Izan ere, Errekabarren kaleko lokal baten 250 marihuana landare baino gehiago, kilo eta erdi haxix eta kokaina gramo batzuk atzeman zituzten; 1.400 euro ere kendu zizkieten. /2003-09-19

HAUTESKUNDEAK

Hauteskundeak egin zituzten auzoetan alkateak aukeratzeko

Hauteskundeak izan zituzten herriko bederatzi auzoetan irail bukaeran. Auzotar guztiak ziren, gainera, hautagai. Auzoetan botoak jaso eta hautestontziak udaltxera eroan zituzten kontatzeko. Urriaren 2an izendatu zituen Arri txu Oliden alkateak auzoetako alkate guztiak. /2003-09-19



Olentzero, Gabon zahar gaua, Bizar Zuri, urte berria, erregeak...

guk ere egun seinatu hauek zuekin ospatu nahi ditugu.




Aretxabaletako Eusko Alkartasuna

URRIA



"Ekuadortarren iritziz, esplotatzaileak ginen gu lan gehiegi eginarazteagatik"

ITSASO URIBEETXEARRIA/ LANKIDEA
2003-10-17



"Hurrengo jeneraziñue okelatan bakarrik ez da sartuko denda txiki baten"

JOSU ARENAZA/ HAKINA
2003-10-31



Erretiratuendako eguna antolatu zuen Udalak urriaren 4an

Udalak antolatuta Erretiratuendako Eguna ospatu zuten herrian urriaren 4an. Goizean meza izan zuten eta ostean bazkari paregabea. Guztira 280 erretiratu hurbildu ziren bazkariara. Gainera, eguna bukatzeko, sari ugari banatu zituzten: Mediterraneoan itsasontzian egiteko bidaia Gregorio Velazquezek jaso zuen, eta 240 euroko txartela Benito Rodriguezek, besteak beste. /2003-10-10

HILEKOESALDIA

"Errepideak ez ditu inork ezagutzen, horregatik auto gidariok beldurrez joaten gara"

MARTIN ZALOÑA/ AUTO GIDARIA
2003-10-31

HILEKODATUA

10.818

EURO GASTATU ZITUZTEN HERRIKO PLAZA AZTERTZEN

Udalak 10.818 euro gastatu zituen Herriko Plazaren azpian aparkalekuak egiteko bideragarritasun planean. /2003-10-10

ZIRKULAZIO NEURRI BERRIAK

↑ Kultura etxe pareko bidegurutzean Udalak neurri berriak hartu zituen zirkulazio arauak errespetatzeko. /2003-10-17

ZABORRA ORDUZ KANPO

↓ Bolumen handiko gauzak 20:00etatik aurrera atera behar dira. Batzuek, ordea, ez dute hori errespetatzen! /2003-10-10

AIPAGARRI




ENERITZ PAGALDAI
Mundukideko langilea

Mozambiqueko Marrupa herrian urtea pasa ostean, bisitan etorri zen herrira. Mundukidek duen proiektuan dabil lanean, eta beste sei hilabeterako joan zen. /2003-10-10



MIKEL URIBEETXEARRIA
Kirol zinegotzia

Kirol zinegotzi berriari herriko kirol elkarten krisiari aurre egitea tokatu zitzaion. Horretarako kirol elkarte bateratuaren aldeko egitasmoa aurkeztu zuen. /2003-10-10



KERMAN GOLINO
Karateka

Gipuzkoako Karate Txapelketan brontzeko domina irabazi zuen. Bi helburu zituen: federazioko txartel ofiziala atera eta gerriko urdina janztea. /2003-10-31

URTEURRENA

Tubos de Precision lantegiak 50. urteurrena ospatu zuen

Urriaren 11n egin zituzten Tubos de Precision lantegiaren 50. urteurreneko ospakizunak. Joseba Azkarraga lan eta justizia sailburua izan zen ekitaldian, Arri txu Oliden alkatearekin batera.

Union Cerrajera eta Beistegi Hermanos lantegien artean sortu zuten Tubos de Precision. Lehe-

nengoak lehengaiekin hornitzen zuen eta bigarrenak BH bizikletak egiteko tutuak erosten zizkion. Ordutik hona aldaketak izan ditu, ixtekotan egon ziren iaz, baina kooperatiba osatu eta aurrera egin zuten. Tutuak egiten dituzte Tubos lantegian, hainbat sektoretarako tutuak. /2003-10-17



Joseba Azkarraga sailburua etorri zen.

JAIA

Gastronomia eta Folklore jaia ospatu zuten urriaren 19an

Kiub-ek antolatzen duen zazpi-garren jaia izan zen aurtengoa. Lau talde etorri ziren kanpotik: Galiziakoa, Gaztela eta Leongoa, Errioxakoa eta Extremadurakoa. Aurten, gainera, Errioxako jotiariak egon ziren. IX. Patxaran Lehiaketan, bestalde, 18 lagunek hartu zuten parte. /2003-10-17

HIRIGINTZA

Errotetxe baserri ostean industri pabilioia eraikiko dute

Herriaren sarreran dauden Errotetxe baserri osteko lurretan industri pabilioia eraiki ahal izateko plan partziala onartu zuen Udalak. Onarpenarekin prozesua jarri zuen abian, eta hilabete batzuk barru hasiko dira egiten. Cerrajera Valle Leniz lantegiak bertan izango du egoitza. /2003-10-24

- Fiskala
- Kontablea
- Juridiko/laborala


Andra Mari Auzunea 3
ARETXABALETA
Tel. 943 79 29 26



ANDRA MARI

Aholkularitza

Jai zorientsuak eta urte berri on!




**urte berri on
guztioi!**

Altzariak


Diseinua

Apainketa



Mobiliario
ARENAZA

Bizkaia 1 ARETXABALETA Tel.: 943 79 08 07



ARALAR

**Pertsona guztiak
Idea guztiak
Proiektu guztiak**

Inon ez inor menpekorikan
nor bere buruaren jabe
herri guztiok bat eginikan
ez gabilta gerorik gabe

Batek goserikan diraueno
ez gara gu asetuko
beste bat inon loturik deino
ez gara libre izango.

Artze

**Su etena, elkarizketa
AUTODETERMINAZIOA**

Zure laguntza ere beharrezkoazaigu

Salbador kalea 1

20690 Elgeta

aretxabaleta@aralar.net

www.aralar.net

AZAROA



"Hemen koadriletan egiten da bizimodua, eta horrek atentzioa eman zidan"

TERE MORENO/ ADINDUEN ZAINZAILEA

2003-11-14



"Txapelketara 10 jokalaria baino gehiago eroanda epailea ere eroan behar da"

ODILO VAZQUEZ/ KARATE EPAILEA

2003-11-28

HILEKOESALDIA

"Belorrieta kaleko eraikinak beste metodologia batzuk aurrera erodateko aukera eman digu"

MAIDER GARAI/ HEZITZAILEA

2003-11-14

HILEKODATUA

22.806

EURO BEHAR IZAN ZITUZEN NEGU KULTURALERAKO

Kultura Sailak 22.806 euro gastatu zituen Negu Kulturalerako egitaraua antolatzen; pailazoan ikus-kizuna zen garestiena. /2003-11-28



Muru-Alde elkarteak, herriko zaharrenak, 50 urte bete zituen

Udan bete zituen 50 urte Muru-Alde elkarte gastronomikoak, baina urteurrena azaroan ospatu zuten. Hainbat ekitaldi antolatu zituzten horretarako: hitzaldiak, Euskaltel-Euskadi txirrindulari taldeko kideen mahai-ingurua... Urteurreneko ospakizunak bazkideen aldeko mezarekin eta bazkariarekin bukatu zituzten. Elkarteak 26 bazkidek sortu zuten 1953. urtean; gaur egun 150 inguru dira. /2003-11-14

BEHAR-BEHARREZKO APARKALEKUA

↑ Otorra jauregi parkean egin zuten aparkalekua behar-beharrezkoa zen autobusak lasai ibili ahal izateko. /2003-11-14

ISUNAK GAZTELANIAZ BAKARRIK

↓ Herritar batek Euskara Zaintzeko Behatokian zera salatu zuen: isuna gaztelania hutsez jaso zuela. /2003-11-07

AIPAGARRI



XABIER SARASUA
Zinegotzia

Agintaldiko lehen hilabeteetako balorazio positiboa egin zuen Aralarrek. Udaleko Gobernu batzordean sartzeko arrazoiak eman zituen, besteak beste. /2003-11-07



AITZIBER MENDIGAIN
Hirigintza teknikaria

Lizartzako hirigintza teknikari gazteak herriko lan txikien, oztopo arkitektonikoen eta ingurumenarekin lotutako gaien ardura hartu zuen. /2003-11-14



IURGI ETXEBARRIA
Kukubiltxoko kidea

Iurgi Etxebarria aktoreak eman zuen Lora-mendi EEK antolatutako antzerkigintzako oinarritzko ikastaroa. Iurgik 10 urte daramatza Kukubiltxo antzerki taldean. /2003-11-21

ENPRESA

Doilan kooperatiba sortu zuten galdaragintza fina lantzeko

Doilan Kooperatiba Elkarteak galdaragintza fina lantzeko sortu zuten hiru lagunek abuztuaren. Azarorako, ordea, lau bazkide ziren, eta beste horrenbeste bazkide laguntzaile. Aretxabaletako Institutuak utzi zizkien makinak, eta lankidetzak hitzarmena sinatu zuten ikasleekin lan egiteko.

Basabe industrialdean zuen egoitza kooperatibak. Bulegoa eta lantegia zeuzkaten bertan, eta inguruko lantegiek galdaragintza finaren alorrean zituzten beharrak asetzea zuten kooperatibako kideek helburu. /2003-11-28

EHNA

Bai Euskal Herriari taldea sortu zuten EHNA bideratzeko

Euskal Herriko Naziotasun Aitorpen agiria, EHNA, bideratzeko sortu zuten Bai Euskal Herriari taldea herrian. Helburu bi zituen: batetik, EHNA tramitatzea, Aretxabaletan sekula ez zelako tramitatze aukerarik egon, eta bestetik, EHNA erabili ahal izateko bideak zabaltzea.

Bai Euskal Herriari taldearen lehenengo pausoa herriko elkarte eta taldeen atxikimendua lortzea izan zen. Horretarako eskutitzak bidali zizkieten guztiei, eta azaro bukaerarako 19 talderen babesa jaso zuten. /2003-11-07

OSOKO BILKURA

Bi mozio aurkeztu eta onartu zituzten ohiko osoko bilkuran

Azaroaren 3an ohiko osoko bilkura egin zuen udalbatzarrak. Aralarrek bi mozio aurkeztu zituen: lehenengoak gay eta lesbianek umeak adoptatzeko duten eskubidea aipatzen zuen eta bigarrenak Andoaingo Kultur Parkean izandako atxiloketak gaitzetsi. Biak onartu zituzten. /2003-11-07

Bereziki: Harategia Urdaitegia Fruitategia

Ondo pasa gabonak!

IMANOL JANARI DENDA

Gorbea kalea 8. ARETXABALETA. 943 79 05 83


ABENDUA



"Biztanleriaren %43,8k gutxi daki Ibarretxeren Planaren inguruan"

EDORTA MENDIETA / LANGILEA

2003-12-05



"Olentzeroren aldekoek hau gureagoa dela esango digute, euskaldunagoa"

ANJEL BERGARETXE / LANGILEA

2003-12-19

HILEKOESALDIA

HILEKODATUA

"Murruxiko MEren helburua da bazkide txartela eta federaziokoa eguneratuta izatea bazkideek"

IKER AKIZU / MURRUKIXO ME

2003-12-05

12

EURO DA KOFRADIAKO BAZKIDE KUOTA

Abenduaren 8an egindako batzar orokorrean bazkide kuota igotzea erabaki zuten. Lehen 8 euro zen, eta orain 12. /2003-12-19



Omenaldia Bixente Etxeandiari

Ohorezko ligako gazteek omenaldia egin zioten Bixente Etxeandia UDako presidenteari abenduaren 14an. Jose Mari Arkauzek, ohorezko ligan jokatzeko duten gazteen ordezkariak, izan zuten buruzagia, eta egitarau berezia antolatu zion.

Lehenengo mailako gazteek partidua bukatzerakoan hasi zuten omenaldia; ohorezko pasilloa eginez ongi-torria egin zioten Bixenteri. Garaikurra eta lore sorta eman zizkieten ostean, eta bazkari ederra egiteko txartela ere oparitu zioten. Bukatzeko ohorezko ligako partidua jokatu zuten gazteek. Jose Mari Arkauzek futbolaren alde hainbeste urtean egin duen lana eskertu gura izan zion Bixenteri. Herritar guztiak gonbidatu zituen, gainera, omenaldian parte hartzera. /2003-12-12

AKORDEOI ORKESTRAK BIGARREN POSTUA

↑ Arrasateko Nazioarteko Akordeoi Txapelketan bigarren postua eskuratu zuen herriko Akordeoi Orkestrak. /2003-12-12

AUTOBUSAK URKULUN ASTEBURUETAN

↓ Kanpotarrak hasi ziren etortzen Urkuluko urtegira, autobusetan, eta hauek eragozpen ugari sortu zituzten. /2003-12-12

AIPAGARRI




MIREN IGARTUA
Irakaslea

Kutxak Gipuzkoako ikasle onenei ematen dien saria jaso zuen. Haur Heziketa ikasketak burutu zituen Mirenek MUn 2002-2003 ikasturtean. /2003-12-12



IRATI PAGOAGA
EHE taldeko kidea

Aretxabaletako Euskal Herriaren Euskaraz taldeko kideak euskararen aldeko herri mugimenduen kontrako erasoak salatu zituen ibarreko kideekin batera. /2003-12-05



UNAI URIARTE
Palako txapeldunordea

Pala txapelketa egin zuten Udaleko kirol zerbitzuek antolatuta, eta Unai Uriarte aretxabaletarra Arrasteko Juantxoekin batera txapeldunorde izan zen. /2003-12-19


EHNA

EHNA tramitatzeko ekitaldia egin zuten abenduaren 14an

EHNA tramitatzeko egun nazionala egin zuten Euskal Herriaren abenduaren 14an, eta Aretxabaletan ere hainbat ekitaldi egin zituzten Bai Euskal Herriari taldeko kideek. 12:00etan hasita Ikurinari egin zioten omenaldia lehenengo, eta Udal hautetsien adierazpena irakurri zuten gero.

EHNA, berriz, udaletxean tramitatu zuten. Bai Euskal Herriari taldeak, gainera, EHNA tramitatzeko jarraitzeko baliabideak eskatu zizkion Udalari.

EHNA egin ostean, erabili ahal izateko bideak zabaltzea zen Bai Euskal Herriari taldearen hurrengo helburua. /2003-12-19



Udaletxean tramitatu zituzten EHNAk.

KOMUNIKAZIO ENPRESA

Bat-bateko itzulpen zerbitzua egiten duen enpresa sortu zuten

Dualia izeneko enpresa sortu eta bat-bateko itzulpen zerbitzua eskaintzen duen produktua saltzen hasi ziren. Enpresekin hartu-emanak izan zituzten, eta interes handia azaldu zuten guztiek. Toribio Echevarria lehiaketan hartu zuten parte, gainera, eta finalisten artean geratu ziren. /2003-12-05

HIRUGARREN MUNDUA

Hiruatx elkarteak 12 urteko lana batu zuten liburuxka baten

Hirugarren munduari laguntzea helburu duen Hiruatx elkarteak 12 urtean egin duen lanaren berri eman zien bazkideei eta herritarrei abenduan kaleratutako liburuxka baten. Unai, Bukavu, Conga... hainbat proiektu eroan dituzte aurrera, eta azkena Ekuadorreko Rukullakta da. /2003-12-19



MARIA JESUS ARGAZKILARIA

Herriko Plaza 10 (Aretxabaleta)
943-771255 656-732463

www.mjargazki.com

EZTEIAK, JAUNARTZEAK, MODAZKO "BOOK"-AK,
ESTUDIOKO ARGAZKIAK, ERREBELATUAK, MARKOAK...
DENA ARGAZKI PROFESIONALEAN

JAI ZORIONTSUAK
ETA URTE BERRI ON!

ERRETRATUZAHARRA



Orain dela 30 urteko jaiotza biziduna erregeen zain

Errege kabalgataren zain daude jaiotza biziduneko kideak. 1972. urte inguruko erretratua da. Orduan, Agustindar mojen komentuan jartzen zuten eta gaur egun Herriko Plazan egiten dute jaiotza biziduna. Erregeak, ostera, Eskoriatzako Marianisten ikastetxetik irteten ziren

eta behor gainean etortzen ziren Aretxabaletara. Kaleak umez betetzen ziren gozokiak hartu eta erregeei muxu emateko. 30 urtetik gora pasatu dira, eta orduko ume asko guraso dira orain, baina bestelakoan zenbat aldatu dira bada garaiak? Umeen ilusioa eta ezinegona berdinak dira.

Erretratuan, ezkerretik eskumara:

Jorge Bengoa, Pello Olabe, Nerea Etxabe, Jon Zuazabeitia, Ana Rosa Etxabe (*aingerua*), Jone Unanue (*aingerua*), Amaia Olabe (*Amabirjina*), Txomin Galdos (San Jose), eta Koldo Zubillaga.

Argazkia: Jaione Olabe

Zorionak
denoi!


URKULU

FERRETERIA • BRICOLAGE
INDUSTRIA HORNIDURAK

Garai, irudi eta zerbitzu berriak.

Mitarte 23 / ARETXABALETA / Tel.: 943 79 96 66 / Faxe: 943 77 10 33 / urkulu@cadena88.com

Jon Díaz



Harakina

Loramendi 1
Tel.: 943 79 71 69
20550 ARETXABALETA

Zorionak eta
urte berri on!

2004 urte gozo-gozoa opa dizuegu!



Okindegia - Gozotegia
Aretxabaleta

Okindegia - Gozotegia
Aretxabaleta
Loramendi 6 • 943 77 17 19
Basabe 2 • 943 77 00 81
Aretxabaleta
Bertako okina

Okindegia - Gozotegia
Aretxabaleta

Okindegia - Gozotegia
Aretxabaleta

GRUPO **RKUZ** 1950-2003

Zure etxea da



Araba etorbidea 20
Tel./Faxa: 943 79 23 51
ARETXABAETA




Araba Etorbidea 5
Tel./Faxa: 943 79 41 82
ARRASATE



Mitarte 3
Tel./Faxa: 943 77 04 55
ARETXABAETA



Andramari auzunea 1
Tel./Faxa: 943 79 10 97
ARETXABAETA



Ze barri?

U R L A T I K L A N D E T A R A

ESKORIATZA • LEINTZ GATZAGA / Egubakoitza / 2003ko abenduaren 26a / 150. zenbakia

20003

urteari begiratuwa

ESKORIATZA eta LEINTZ GATZAGA

ZORIONAK

FAGOR




Fagor Ederlan

KALEINKESTA/ Nola baloratuko zenuke 2003. urtea? Eta zer eskatzen diozu 2004. urteari?



AINARA ZUBILLAGA
Langilea

Orokorrean urte ona izan da amaitzeko dagoena. Umea zaintzen eman dut urtea, eta lasai-lasai ibili naiz. Urte berriari, osasuna badudanez, lana eta dirua eskatuko dizkiet.



CIRILO PEREA
Langilea

2003a ondo joan da. Euskara ikasteko astia izan dut. Datorrenari ere horixe eskatzen diot: euskara ikasteko denbora apur bat izatea. Eta osasuna, lana... zoriontsua izatea!



JAIONE GARAI
Langilea

Niri gauza partikularrik ez gertatu arren, orokorrean urtea ondo joan zait. Ezin naiz inondik inora kexatu. Horrenbestez, urte berriari aurtengoa bestekoa izatea eskatuko nioke.




FELIPE MARTELO
Langilea

Ona izan da amaitzeko dagoen urte hau. Lana egoten bada denok ibiltzen gara hobeto. Aurten, gainera, itsuen aldeko zozketa irabazi dudanez... 2004. urteari lana edukitzea eskatuko diot.



SUSANA AIASTUI
Langilea

Hau ere azkar, konturatu orduko joan dela! Egia esan, makinatxo bat gauza gertatu dira aurten. Niri konkretuki ondo joan zait. Datorrenari denbora libre luzetagoa izatea eskatuko nioke.



JESUS ARROIABERE
Erretiratua

Euskaldunondako ez da urte erraza izan, baina dominatuko dugu egoera. Kirol mailan urte ona izan dut. Urte berriari tiro txapelketetara joateko aukera izatea eskatuko nioke.

ETABARRUAN...

URTEARI GAINBEGIRATUA

- Urtarrila** /3
- Otsaila** /4
- Martxoa** /5
- Apirila** /6
- Maiatza** /7
- Ekaina** /8
- Uztaila** /10
- Abuztua** /11
- Iraila** /12
- Urria** /13
- Azaroa** /14
- Abendua** /15



ALKATEENGAINBEGIRATUABI HITZETAN



JUAN KARLOS BENGOA / Eskoriatzako alkatea

*Eskoriatza
2003. urteari
gainbegiratua*


Amaitzeko dagoen urtearen balantzea edo laburpena egiterakoan gertakizun nagusi bat aipatu behar da: hauteskunde urtea izan dela. Horrek betekizaten du eragin zuzena udal jardueran normala geldiarazteko. Aurreko urteetatik burututa dauden ekintzak ez badira, adibidez, udaletxe berria, beste hainbat ekintza ez dira burutzen epe normaletan. Horrez gainetik udal talde berriak osatzeak eta antolatzeak ematen duen denbora ere aipatu behar da jardueran normala atzeratzeko. Espero dut sartu berri den jendeak dakarren bultzadak lagunduko digula atzerapen hauek errekuiperatzen.

Bestalde, eta baita hauteskundeekin lotuta, ezin dugu aipatu barik utzi ezker abertzalearen Kontzejupe plataformaren ilegalizazioak suposatzen duen egoera berezia. 2.003 urtean bukatu zen 1.999an

hasitako legealdi berezia, hau da ETaren treguarekin hasi zen legealdia. Horrek ilusio handia sortu zuen guztiongan eta baita Eskoriatzan ere. Ondorioz, aurten bukatu den legealdiaren hasieran herriko talde politikoen harremana izugarri hobetu zuen. Su etenaldia bukatu ondoren egoera berezi hori mantentzen saiatu ginen zinegotzi guztiok. Hauteskundeak heldu eta batzuen ilegalizazioak eta beste alderdi

"Su etenaldia bukatu ondoren egoera berezi hori mantentzen saiatu ginen zinegotzi guztiok"

batzueganako mehatxuak, ordezkariak aurkezteko dituzten eragozpenak kontuan hartuta, eta horren adierazle, alderdi sozialistako bigarren zinegotziak kargu ez hartzea, egoera berria azaltzen dute. Egoera honek Eskoriatzak behar dituen ekintzak burutzekeko talde politiko guztien ahalegina ekarri beharko du, eskoriatzarren ordezkari denak izan behar dutelako ahotsa eta eragina udal jardueran.



JOXE RAMON PEREZ / Gatzagako alkatea

*Gatzaga
2003. urteari
gainbegiratua*

Barrixe naz Gatzagako barri emuteko, aurten nahiko lan dauket herriko martxa antzematen, baina aurrekuek lan dexente egin dauen dudarik ez dauket, behintzet.

Azkenik gatzagarrrak badaukie nun ein erosketak. Zabaldu dala, Labidea denda eta turismo bulegue!, bertakuei eta bisitarietara zerbitzua eskeintzeko. Gorantz egin dau gatz museoko bisitak, poliki-poliki bagoiez gaziketan bertara gerturaketan dan jendie. Ez da problema Kotxiak izteko lekue, ein die bertarako nahikue dien aparkalekuek-eta. Sekuleko berue pasau dou aurtengo udan. Alde batetik, uda sargorixe eta bestetik suak be ederto erre ditxu bazterrak. Zelako negue etorriko da?, ondion ez dou elur haundirik ikusi, baina badatorrela esaten daue bertako batzuk. Gatzagarrok ez daukou aurten gaixoketako

"Barrixe naz Gatzagako barri emuteko. Nahiko lan dauket herriko martxa antzematen"

arriskuik, nahikue erremedi-xo eman dosku Altubek, Sorginek prestatutako sendabedar erakusketan. Kirolariz beteta daukou herrixe, Gatzagako Lehen Mendi Kriteriuma eta Mendi bizikleta proba

antolatu dau Dorletako Txirrindulari Batzordiak. Mendi ibilaldian gatzagako gaztienek kriston maila erakutsi euien. Oin be ibili die Txarrantxa eta Beloki pelota partiduek antolaketan, zeinek irabaziko eta, eskoitzarrak

nagusi! Zeinek esango leuke, bailarako gaztiekerakertzeko modue, patinetien ibiltzeko "U" esaten jakon tramankulue jartie izengo zala. Ez dago Gatzagan Internet ezagutzen ez dauenik, Mendikoiko autobusien lenengo eta kz gunean gero eindako ikastaruei esker. Diaporama aurkeztu berri da, herriko eta herritarren argazkien bitxartez gure bizilekue eta bizimodue bestiekerakertzeko animoz.

Ze barri?

Durana, 11
20550 ARETXABALETA
Tel.: 943 79 86 21
Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: zebbarri@goiena.com

ZUZENDARIA
Aintzane Gardoki

ERREDAKZIOA
Kepa Errasti
Mirari Altube
Amagoia Lasagabaster

MAKETAZIOA
Alex Azkarate

PUBLIZITATEA
Ziortza Martin

ZUZENTZAILEA
Sergio Azkarate

LEGE-GORDAILUA
SS-378-94

ISSN
1134-2609

TIRADA
3.800 ale

ARETXAGAZETA / ZE BARRI? • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako
Kultura Saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Aretxabaletako
Udala



Eskoriatzako
Udala



Leintz Gatzagako
Udala

URTARRILA



"Azkeneko 10 urteotan ukitu ez diren liburak ez ditugu beste aldera eramango"

IÑAKI AGIRIANO / BIBLIOTEKARIA

2003-01-31



"Erretiratuak kantuan eta eskean joateak herrian giro ona ipiniko luke"

ROSA URRETA / IRAKASLEA

2003-01-31

HILEKOESALDIA

"Gazteekin benetako dinamika sortu gura bada, Gazte-kantoi programak jarraipena izan beharko luke"

NEREA ABAD / GAZTEKANTOI

2003-01-17

HILEKODATUA

130

UMEK EGIN ZIOTEN GORAZARRE SAN SEBASTIANI

Urtarrilaren 20an, Luis Ezeizako 130 ume elkartu ziren danborrada jotzeko. Gurasoengandik txalo ugari jaso zituzten. /2003-01-24



Suak eragindako kalteen ondorioz, Toki Eder elkarteak itxi egin zuten

Urtarrilaren 11n, zapatua, sua piztu zen Garro jauregian. Lehenengo, kea zabaldu zen; gero, tximiniatik garrak irteten zirela konturatu ziren. Sua itzaltzeko lehen ahaleginak herritarrek egin zituzten; gero, suhiltzaileen hiru kamioi gerturatu ziren. Zaharberitze lanak egiteko, aste batzuetan itxita egon zen Toki Eder elkarteak. /2003-01-17

PARTE-HARTZE HANDIA

Amuskak urtarrilean antolatu zituen ikastaroetan jende askok hartu zuen parte. /2003-01-31

GABON ZAHARRETAN UDALETXEAN SARTU ZIREN

Gabon zahar eta Urteberri eguna bitartean ezezagun batzuk udaletxean lapurretan ibili ziren. /2003-01-10

AIPAGARRI



GARBIÑE GONZALEZ
HUHEZIKO langilea

Garbiñe Gonzalez beste 200 lagunekin batera Galiziako kostaldeko fuel-olioa garbitzen ibili zen abenduan. Esperientzia bikaina izan zela esan zigun. /2003-01-10



NEREA ABAD
Gaztekantoi

Nerea arrasatearra da, baina Eskoriatzako gazteekin eman zituen neguko asteburuak. Nerea izan zen Gaztekantoi proiektuko arduraduna. /2003-01-17



GARAZI OROBENGOA
Ikaslea

Begiak zerua baino politagoak daukazu, irribarra itsasoa bezain indartsu, eta ni zugatik itsu. Piropo horrekin irabazi zuen Loramendi Literatura Lehiaketa. /2003-01-31

EHIZA

Ehizarako postuak dituzten lur-jabeek eskaria egin zuten

Ehizarako postuak dituzten lur-jabeek euren interesak defendatu gura izan zituzten urtarrilaren erdialdean. Horretarako, bat egin zuten Goierrin sortu zen talde batekin. Lur-jabeen asmoa ez zen izan ehiztariei kontra egitea. Hain zuzen, gura zuten Gipuzkoako

Foru Aldundiak bizi zuten egoera zehaztea. Lur-jabeek euren lurrek ehiza dela-eta emandako etekinen banaketan zeresana izatea eskatu zioten Foru Aldundiari. Egindako presioaren ondoren, Foru Aldundiak ehiza postuen zentsua egin zuen. /2003-01-17

OMENALDIA

Xanti Iparragirreri omenaldia egin zioten herriko lagunek

Urtarrilaren 14an, zapatua, *Euskal Herrian libre bizitzeko* lelopean manifestazioa egin zuten Eskoriatzan. 500 lagunek, herriko kaleetan zehar ibili ondoren, Xanti Iparragirreri ongietorria egin zioten plazan. Xanti 22 urtez egon zen herritik kanpo.

Herriko dantzari eta txistulariek aureskua eskaini zioten eta alkate Edorta Zubizarretak herriaren izenean txapela eskaini zion Xantiri. Etxerat, Askatasuna eta Bai Euskal Herriari taldeek ere egin zioten hainbat eskaintza. /2003-01-24

LANAK

Kultura etxea zaharberitzeko lanak hasi zituzten

Herrian abiarazi zuten Irisgarritasun Planaren barruan kokatu zituzten urtarril amaieran kultura etxean hasi zituzten eraberritze lanak. Irisgarritasun Planak herrian dauden arkitektura trabak txikitu eta guztiondako herri erosoagoa egitea du helburu. /2003-01-31



ILE APAINDEGIA · LUZATZEA · MAKILLAJEA · LOOK ALDAKETAK
Aranburuzabala 30 ESKORIATZA 943 71 30 31

Urte berri on zoriontsua izan dezazuela!



OTSAILA



"Drogak marjinazioarekin lotzeko jendeak duen joeraz apurtu gura dugu"

MYRIAM B. DE HEREDIA/ LANGILEA
2003-02-07



"Herriaren alde lan egin gura duen plataforma dinamikoa eratu nahi dugu"

GARI KORTAZAR/ KOTZEJUPE
2003-02-21

HILEKOESALDIA

"Museoa gure ondasun kulturalaren ispilua da, eta munduari erakutsi gura diogu"

JOXERRA AGIRREURRETA/ ALKATEA
2003-02-14

HILEKODATUA

700

KILO JANARI BATU ZITUZTEN ARIZMENDIKO ALMEN GUNEAN

Serso San Viator Hirugarren Mundurako elkarteak egindako SOS Sahara kanpainarako 700 kilo janari batu zituzten. /2003-02-14



Herritar ugari adierazi zioten elkertasuna 'Euskaldunon Egunkaria'-ri

Joan den otsailaren 20an, *Euskaldunon Egunkaria* itxi zuten berriarekin esnatu zen Euskal Herria. Egun horietan, Del Olmo epaileak agindutakoaren kontra egin, eta *Egunkaria*-ri elkertasuna adierazteko herritar ugari elkartu zen Herriko Plazan. Han, Joserra Zubizarretak eman zigun Guardia Zibilak egindako miaketaren berri. /2003-02-28

MENDEBALEKO SAHARAREN ALDEKO LAGUNTZA

↑ Sahararrek bizi duten egoerari irtenbidea emateko eskatuzion Gatzagako Udalak Nazio Batuen Erakundeari. /2003-02-14

HAIZE GOGORRAK ERAGINDAKO KALTEAK

↓ Otsailaren 25ean izandako haize gogorraren ondorioz, Eskoriatzan, ordu batzuetan, argi barik egon ziren. /2003-02-28

AIPAGARRI



LAURA PEREZ
Ludotekako begiralea

Laura Perez aretxabaletarra 2002ko urrian hasi zen GUREL ludotekan lanean. Ludotekan egindako lanari begiratu egin zion otsailko alean. /2003-02-21



MIKEL ERRARTE
Santa Ageda mutila

Mikel Errarte Santa Ageda mutil izan da aurtun, eta otsailaren 14ko zenbakian Santa Ageda mutil izatearen esperientziaren gainean egin zigun berba. /2003-02-14



IÑAKI AGIRIANO
Bibliotekaria

Iñaki Agiriano otsailaren hasi zen liburutegi berriko ardura-dun lanetan. Lau urtez eszedentzian egon ondoren hasi zen Iñaki berrira lanean. /2003-02-14

ERAKUSKETA

'Drogak: gizarte gaia' izeneko erakusketa jarri zuten ikusgai

Ibarreko beste zenbait herritan egon ostean, Prebentzio Zerbitzuko Eskoriatzara ekarri zuten *Drogak: gizarte gaia* izenburuko erakusketa. Otsailaren 10ean jarri zuten ikusgai kultura etxean eta otsailaren 16ra arte egon zen. Erakusketan, hainbat erretraturen

bitartez, drogen errealitatea islatzen saiatu ziren. Gainera, drogak eurak aztertu beharrean, drogen errealitatea gizarte errealitateari lotuta lantzen zuen. Antolatzaileek aipatu zuten gizarteko sektore guztietara zuzendutako erakusketa zela. /2003-02-07

UDAL AURREKONTUA

Udalak ia sei milioi euroko aurrekontua onartu zuen

Otsailaren 13an egindako osoko bilkuran, 5,9 milioi euroko udal aurrekontua onartu zuen Eskoriatzako Udalak. Udaltzarre-hamar zinegotzi joan ziren, eta Ezker Batuak izan ezik, gainerako zinegotziek aho batez onartu zuten 2003ko udal aurrekontua.

2002an onartutako aurrekontuekin alderatuz, %8,5 jaitsi zen aurtengoa. Jaitsiera horren arrazoietakoa bat izan zen, besteak beste, inbertsionarako diru gutxiago bideratu zutela. Inbertsioen atalean, hain justu, %28 jaitsi zen 2003an. /2003-02-21

GATZAGAN ELURRA

Otsailarekin batera elurra heldu zen Gatzagara

Otsailarekin batera elurra iritsi zen Gatzagara. Eskolara jaisteko ziren ikasleak, autobusa ez zeterrela-eta, ezin jaitsita geratu ziren. Herriko eskolako umeek, berriz, irakaslea ezin zela herri-ara heldu-eta, maldan gora eta behera elurrarekin jolasten pasatu zuten egun osoa. /2003-02-07



Maulanda merenderoa

Maulanda Auzoa, 20540 ESKORIATZA
Tel.: 943 71 47 20 eta 943 71 54 56

MARTXOA



"Beste herri batzuetako turismo bulegoekin harremana estutuko dugu"

AMAIA OLABE / LABIDEA

2003-03-28



"Museoaren proiektua aurrera ateratzea erronka pertsonaltzat hartu dut"

AITZIBER GOROSABEL / LABIDEA

2003-03-28

HILEKOESALDIA

HILEKODATUA

14

"Argitaratu berri dugun 'Idatziak' liburuxkan erraz aurkituko ditugu idatzi gura ditugun gauza guztiak"

MARI CARMEN ARRIETA / EUSKARA TEK.

2003-03-28

LAGUN EKARRI ZITUEN MUNDUKIDEK GURERA

Mundukide Fundazioak antolatutako programa baten ondorioz, Hego Amerikako eta Afrikako 14 gazte etorri ziren. /2003-03-14



Aratuste jaiak ospatu zituzten

Umeek eman zioten hasiera Inauteriei, Urdelardero Eguna-rekin. Martitzenean, hilak 4, umeek ikuskizun ederra eskaini zuten Eskoriatzako plazan, eta Kukumarruek ere ez zuten hutsik egin. Gainera, nagusi ugari, Inauteriak indartu guran-edo, etxean gordeta zituzten moztarroak jantzita ibili ziren kalean. Eskoriatzar koadrila batek adierazi zigenez, giro polita egon zen eta herritar askok hartu zuten parte aurtengo Inauterietan. Zapatu arratsaldean, behintzat, San Pedrotan baino jende gehiago ibili zen.

Gatzagan ere izugarritzko giroa izan zuten Aratustean. Zapatu arratsaldean, martxoak 2, hasi zen jai. Desfilea izan zen ekitaldi nagusia eta etxe bakoitzeko jantzirik dotoreenak ikusteko aukera egon zen. /2003-03-07

'EGUNKARIA'-REN ALDEKO HERRI BATZORDEA

↑ *Egunkaria*-ren alde lan egiteko herri batzordea sortu zuten Eskoriatzan. /2003-03-07

AUTO ISTRIPU IKUSGARRIA

↓ Martxoaren 2an auto istripu ikusgarria gertatu zen Olazar auzoan. Zorionez ez zen ezer larririk gertatu. /2003-03-07

AIPAGARRI



MARI CARMEN ARRIETA
Euskara teknikaria

Ibarreko euskara teknikari batzuekin batera *Idatziak* liburuxka atera zuten martxoan. Egoera tirabiratsua euskaraz nola idatzi jakiteko balio du. /2003-03-28



EUSEBIO CORCUERA
Errestauratzailea

Eusebio Corcuera, Siglo XXI enpresako langileak, udaletxe gainean zegoen armaria zaharberritu zuen. Armarrria larriki kaltetuta omen zegoen. /2003-03-21



ANDONI BENGOA
'Egunkaria' batzordekoa

Otsailaren 26an *Egunkaria*-ren aldeko batzordea sortu zuten. Andoni Bengoa batzordekideak harpidedun egiteak duen garrantzia azaldu zigun. /2003-03-21

MARTXOAREN 8A

Sorginak taldekoek bazkaria egin zuten martxoaren 8an

Sorginak emakume taldeak martxoaren 8a bazkari batekin ospatu zuen. Guztira 30 emakume elkartu ziren. Baño bazkaldu eta gero, Arrasateko Gau Alai taldearen doinuekin gorputzak gogotik astindu zituzten, iluntzera arte. Aurten ere ohorezko hiru *sorgin* izendatu zituzten: Pantxi

Ibartzabal, Blanki Arana eta Aintzane Gardoki izan ziren ohorezko izendapen hori jaso zuten hiru emakumeak. Eskapulario batzuen bidez, *Gerrarik ez*, *Adierazpen Askatasuna* eta *Nunca Mais* aldarrikatu nahi izan zituzten Gatzagako emakume taldeko *sorginek*. /2003-03-14



Martxoaren 8ko sorgin bazkaria.

OSASUN PASTORALTZA


Osasun Pastoralatzako kideek batzarra egin zuten Donostian

Gipuzkoako Osasun Pastoralatzako kideek elizbarrutiko urteroko batzarra egin zuten martxoaren 15ean Donostian. Hain zuzen ere, Debagoieneko 25 lagun batu ziren batzarrean. Tartean, baita lau eskoriatzar ere. Guztiek egun ederra pasatu zuten elkarrekin. /2003-03-21

UDAL AURREKONTUA

Gatzagako udalbatza 2003ko aurrekontua onartzeko ahaleginetan

Udalbatzak, otsailaren 27ko hileko ohiko bilkuran, 2003rako udal aurrekontua onartzeko lehenengo ahalegina egin zuen. Hala ere, aurrekontua ez zen zehaztu martxoaren 13ra arte. Orduan jakinarazi zuten 2003rako udala aurrekontua 386.552,03 eurokoa izango zela. /2003-03-21



Zorionak guztioi!

Intxaurtxueta 5 20540

Telefona: 943 71 52 96

Eskoriatza

APIRILA



"Guztiok herriaren alde jarrera baikorrarekin lan egin dugula uste dugu"

JUAN KARLOS BENGOA/ ZINEGOTZIA

2003-04-11



"Agintaldi hau ahaztu, eta aurrera egitea da orain gure asmoa"

JABIER ZUGASTI/ ZINEGOTZIA

2003-04-11

HILEKOESALDIA

"Agintaldi hasieran finkatutako helburu gehienak bete egin ditugu; hortaz, balorazio ona egin dezaket"

EDORTA ZUBIZARRETA/ ALKATEA

2003-04-11

HILEKODATUA

100

LAGUN INGURU BATU ZIREN BERTSO AFARIAN

Kontzejupe plataformak Xanti Iparragirren omenez egindako bertso afarian ehun bat lagun inguru izan ziren. /2003-04-04



Dantzari Eguna ospatu zuten apirilaren 14an Eskoriatzan

Aspaldiko partez, apirilaren 14an Eskoriatzak ibarreko 170 dantzari eta txistulari hartu zituen Dantzari Egunean. Giro polita izan zen eta herritar asko egon zen dantzariak eskaini zituzten dantzak ikusten. Eskoriatzan umeen dantza taldea sortzeko asmoa zeukatela adierazi ziguten Udaleko Euskara eta Hezkuntza Sailetik. /2003-04-18

DENDAREN ETA TURISMO BULEGOAREN ARRAKASTA

Labidea dendarekin eta Turismo Bulegoarekin oso pozik azaldu ziren bertako langileak. /2003-04-11

HERRI BATZARREAN JENDE GUTXI

Maiatzerako hauteskunderi begira alkateak deitutako herri batzarrean oso jende gutxi hartu zuen parte. /2003-04-16

AIPAGARRI



JOXERRA AGIRREURRETA
Gatzagako alkatea

Pasa den agintaldia bukatu baino lehenago, Gatzagako alkate Joxerra Agirreurretak agintaldiaren balorazioa egin zuen ZE BARRI? aldizkarian. /2003-04-04



EDORTA ZUBIZARRETA
Eskoriatzako alkatea

Eskoriatzako alkate Edorta Zubizarretak ere ZE BARRI?n hitz egin zuen. Honek ere lau urteko agintaldiaren gaineko balorazioa egin zuen herri aldizkarian. /2003-04-11



XANTI IPPARRAGIRRE
Omendua

Kontzejupe plataformak antolatuta bertso afaria egin zuten gaztetxean martxo amaieran, Xantiren omenez. Silbeira eta Estibailez izan ziren bertsoan. /2003-04-04

'KOLDOTXO' HIZTEGIA

'Koldotxo' hiztegia sortu zuen Luis Ezeizako Guraso Elkarteak

Luis Ezeiza Herri Eskolako Guraso Elkarteak *Koldotxo* hiztegia sortu zuen gurasoen artean euskara indartu eta bultzatzeko. Hiztegi horrek oinarritzko gauzak euskaraz nola esaten diren azaltzen du. Hilabete behin banatzen dute gurasoen artean *Koldotxo* hiztegia. /2003-04-04

ANTIMILITARISTA EGUNA

Gazte Asanbladak Antimilitarista Eguna ospatu zuen

Gazte Asanbladako kideek Antimilitarista Eguna ospatu zuten apirilaren 5ean. Militarren lanaren gainean antzeztutako parodiak arrakasta handia izan zuen. Bazkari herrikoian 70 lagun inguru batu ziren eta Gaztetxeko kontzertuetan giro paregabea izan zuten. /2003-04-11



Militarren lan zakarra gaitzesteko antzezlari umoretsua egin zuten.

DENDAREN INAUGURAZIOA

Leintz Gatzagako Labidea denda inauguratu zuten

Apirilaren hasieran zabandu zituzten Gatzagan Labidea denda eta Turismo Bulegoa. Herritar asko eta ibarreko jende ugari egon ziren inaugurazioan. Denda eta bulegoa bisitatu eta gero, luntxa eskaini zieten inaugurazioan parte hartu zuten guztiak. /2003-04-04

AKEITA

taberna

Pintxoak eta
ogitartekoak

TEL: 943 71 50 94 • Santa Ana 23 • ESKORIATZA



MAIATZA



"Herritarrekin osatutako talde anitza da Kontzejupe herri plataforma"

DORLETA KORTAZAR/ KONTZEJUPE
2003-05-16



"Manipulazio politikoaren aurrean gaude. Aurkezten direnak kanpotarrak dira"

JAIONE VITORIA / IRAKASLEA
2003-05-09

HILEKOESALDIA

HILEKODATUA


"Hauteskunde hauetan heldutasun maila handia erakutsi du Gatzagako herriak"

EUGENIO OTSOA/ZINEGOTZIA
2003-05-30

3

PERTSONA EGON ZIREN HAUTESKUNDE MAHAIAN

Osoko bilkura berezian aukeratu zituzten hauteskunde egunean Gatzagako mahaian egon behar zuten hiru herritarrak. /2003-05-09



Udaletxe berriua inauguratu zuten

Eskoriatzako udaletxe zaharberriaren inaugurazioaren berri eman genuen maiatzean. Herritar askok parte hartu zuen inaugurazio ekitaldian. Dantzari batek aurrerakua dantzatu zuen, eta gero herriko alkate Edorta Zubizarretak udaletxe berriaren ateak ireki zituen.

Osoko bilkuren areto berriuan udalbatza osatzen zuten alkatea eta bederatzi zinegotziak eseri ziren. Lehena berbetan Edorta Zubizarreta izan zen: "XXI. mendean sartu berri gaudela-eta, Eskoriatzako herriari, denon artean, beste bultzada bat eman gura diogu, garaian garaiko herria izan dezagun".

Hamabost hilabete egin zituzten zaharberritze lanean, oztopo arkitektonikoak kentzeaz gainera, argitasuna eta ikuspegi zabala lortzea izan zuten helburu. /2003-05-09

JENDE UGARI ATXORROTZ EGUNEAN

↑ Izugarritzko eguraldia izan zen Atxorrotz egunean eta, ondorioz, jende mardoa gerturatu zen. /2003-05-09

MAIATZAREN 25EKO HAUTESKUNDEAK

↓ Istiluz betetako hauteskundeak izan ziren Euskal Herrian, herri plataformak legez kanpo utzi baitzituzten. /2003-05-31

AIPAGARRI



JOSE RAMON PEREZ
Alkategaia

Maiatzaren 25eko hauteskundeetan herriko hautagaiekin osatutako zerrendak irabazi zuen. Jose Ramon Perez zen Gatzagarako alkategaia. /2003-05-30



JUAN KARLOS BENGOA
Alkategaia

Eskoriatzan EAJ-EA koalizioak jaso zuen hauteskundeetan boto kopuru handien. Hori dela eta, Juan Karlos Bengoak hartuko zuen alkate kargua. /2003-05-30



JASONE DIAZ DE GEREÑU
Kirolaria

Euskara, kirola eta aisialdia lelopean Kultura Astea egin zuten Arizmendi Ikastolan. Gonbidatuen artean, Jasone Diaz de Gereñu kirolaria izan zen ikasleekin. /2003-05-16

SORGINAK TALDEAREN BIDAIA

Sorginak taldeko kideek bidaia polita egin zuten

Aurten, Oviedo eta Gijon izan zituzten jomuga Sorginak taldeko kideek. Asteburuan zehar, 20 emakumek Asturiasko hainbat leku bisitatzeko aukera izan zuten: "Ezuste ederra hartu dugu gehienok; izan ere, oso inguru politak bisitatu ditugu. Eguraldi ezin hobea izan dugu. Bes-

talde, aisialdirako inoiz baino denbora luzeagoa izan dugu, norberak gura izan duena egiteko, eta horrek bidaia lasaiagoa izatea ekarri du. Oso giro polita izan dugu", esan ziguten Sorginak emakume taldeko kideek 2003ko herri aldizkariko maiatzaren 16ko zenbakian. /2003-05-16



Leku asko bisitatu zituzten *Sorginek*.

BERTSOLARITZA

Eskola Arteko 23. Bertsolari Txapelketa jokatu zuten

Ibarretik etorritako ia 300 gazte txo batu ziren maiatzaren 23an Arizmendiko Almen gunean. Bertso-paperetan eta bat-batean jardun zuten Lehen Hezkuntzatik hasi eta Batxilergo mailarainoko ikasleek. Bertso-paperetan Debagoienerako eskoletako ikasleek hartu zuten parte. /2003-05-30

EUSKARA

Euskararen erabilera neurtu zuen Udalak Eskoriatzan

Udaleko Euskara Sailak hala eskatuta, euskararen kale erabilera neurtu zuen SEI elkarteak. Ikerketa horren arabera, Eskoriatzako kaleetan euskararen erabilera, batez beste, %30 da. Datu horiek guztiak prentsaurreko baten bitartez kaleratu zituzten maiatzaren 12an. /2003-05-16



Garbiketetan profesionalak gara

943 71 48 45
607 94 89 84

web gunea: www.hemen-garbiketak.com

Urte berri on!

EKAINA



"Herritik sortutako ekimena da ikastola; herritarrek zuzentzen dutena"

TXARO IRAETA/ ARIZMENDI IKASTOLA
2003-06-20



"Jai batzordean adin guztietako herritarrek elkartzen gara"

IMANOL ANETXAGA/ JAI BATZORDEA
2003-06-27

HILEKOESALDIA

"Txikirri-Txikirrin, parte-hartzaile kopuruak gora egin duen arren, emakumeak gero eta gutxiago gara"

GARBIÑE URIBE/ ANTOLATZAILEA
2003-06-13

HILEKODATUA

110

IKASLE ETA GURASO EGON ZIREN HONDARRIBIAN

Luis Ezeiza Ikastetxeko 110 ikasle eta gurasok Hondarribiko aterpetxera eta, ondoren, Hendaiara egin zuten irteeratxo. /2003-06-06



Zazpigarren aldia bete zuen ekaineko Ferixiek

"Jendea gainezka, salmenta onak, eguraldi ona eta giro ezin hobea izan ditugu aurtengo Ferixan. Pozik gaude jaso dugun erantzunarekin", esan zigun Arizmendi ikastolako Rosa Elizburuk. Herri bazkarian 400 lagun elkartu ziren. Saritutako postu onenak Apotzaga baserriarena, Gregorio Graciarena eta Txaro Uriberena izan ziren. /2003-06-13

SENDABELARREN GAINEKO IKASTAROA

↑ Sorginak taldeak antolatutako sendabelarren gaineko hitzaldian jende ugari egon zen. /2003-06-20

ERREPIDE ARRISKUTSUA

↓ Ekainean gizon bat hil zen Ederlan parean auto batek harapatuta. Errepide arriskutsua da hori. /2003-06-06

AIPAGARRI



MAITE BEITIA
Irakaslea

Arizmendi ikastolak antolatutako zazpigarren feria egin zuten Eskoriatzan, eta Maite Beitia burubelarrari aritu zen azokaren antolaketa lanetan. /2003-06-06



OIHANA AIZPURU
Udaleko idazkaria

Maiatzaren 14an hasi zen Oihana Aizpuru soralezetarra Udaleko idazkari laguntzaile. Bederatzi lagunen artean aukeratu zuten Oihana Aizpuru. /2003-06-06



DORLETA ELKOROBARRUTIA
Toki Eder elkarte

Toki Eder elkarte konponketa lanekin arduratu zen elkarte presidentea Dorleta Elkorobarrutia. Elkarte ekainaren 7an zabaldu zuten. /2003-06-06

ZARAUZERA IRTEERA

GUREL elkarteko 26 ume eta guraso Zarautzen egon ziren

Hamabi aita-amak eta 2 eta 14 urte arteko hamalau gaztetxok Zarauzko Igerain aterpetxean pasatu zuten ekaineko lehen asteburua. Hondartzetan galipotak egindako kutsadura dela eta umeek ez zuten itsasoan bainatzeko aukerarik izan. Hala ere, oso giro ona izan zuten. /2003-06-13

URPEKO MURGILKETA

Eskoriatzako kirolegiak murgilketa ikastaroa egin zuen

Kirolegiko arduradunek antolatutako urpeko murgilketa ikastaroak oso harrera ona izan zuen. Maiatzaren 26tik ekainaren 6a bitartean, 29 lagunek hartu zuten parte Asier Linazisoro bergararrak eman zuen ikastaroan. Ikastaroak zati praktikoa eta zati teorikoa izan zituen. /2003-06-20



Kirolegiak antolatutako murgilketa ikastaroan 29 lagunek parte hartu zuten.

HITZARMENA

Hitzarmena sinatu zuten Goienak eta HUHEZIK

Ekainaren 3an Goiena Komunikazio Zerbitzuek eta Eskoriatzan dagoen Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntzen Zientzien Fakultateak (HUHEZI) lankidetzarako hitzarmena sinatu zuten. Akordioa lau urtean zehar aurrera eramateko sinatu zuten. /2003-06-06

Urte berri on guztioi!




Sukaldeko Bateriak • Lapiko Lasterrak • Zartakin eta Paeilaontzi itsasgaitzak

Aingeru Ibiltoki 3 / Tel.: 943 71 41 31 / Eskoriatza 20540



**Olentzero begi gorri,
nun harrapatu duk
arrain hori?**

**Urkuluko zubipean
aingira beltzen artean.**



**Leintz Gatzagako Udalak herritarroi
gabon zoriontsuak opa dizkizue!**

UZTAILA



"Gatzagan garaile izan diren txirrindulari asko profesionaletan daude"

MANOLO ZUBILLAGA / DORLETA BATZORDEA

2003-07-18



"Toki Ederren 90 lagun gara. Kopuru horren barruan erretiratuak ere badaude"

ALBERTO OÑATE / TOKI EDER

2003-07-04

HILEKOESALDIA

"Azkeneko asteotan herria umez gainezka egon da; horrek bizitasun berezia eman dio herriari"

ENERITZ JAUREGI / BEGIRALEA

2003-07-24

HILEKODATUA

17

UME IBILI ZIREN GATZAGAKO UDALEKU IREKIETAN

Uztailean 3 eta 10 urte arteko 17 neska-mutikok parte hartu zuten Gatzagako Udaleku Irekietan. Gusura ibili ziren. /2003-07-24



Kalitatezko jai egitarauak herritarren erantzun ezin hobea jaso zuen

Herritarren partetik erantzun ezin hobea jaso zuten aurtengo San Pedro jaiek. Ekainaren 28an hasi eta uztailearen 1a bitartean jai giroa izan zen nagusi Eskoriatzan. Adin guztietako jendearentzat zuzendutako programa antolatu zuten Jai batzordeko kideek. Herritarren erantzunarekin programaren kalitate ona agerian geratu zen. /2003-07-04

KANPOKO ZINEMA EMANALDIEN ARRAKASTA

↑ Herritar ugari batu ziren udako hilabeteetan Eskoriatzako Herriko Plazan eman zituzten filmak ikusteko. /2003-07-24

KOADRILEN ARTEKO LEHIAKETA

↓ Debagunek antolatutako koadrilen arteko lehiaketa ez zen egin, gazte koadrilek ez zutelako parte hartu. /2003-07-04

AIPAGARRI



XABIER GOMEZ
Parrokoa

Sei urtean zehar Eskoriatzako parrokoa izan eta gero, Xabier Gomezek Salamancara joatea erabaki zuen. Penaz hartu zuten herritarrek erabakia. /2003-07-11



ESTEBAN ARRIETA
Omendua

Arrietak txirrindularitzaren alde egindako lanagatik oroigarria jaso zuen. *Hazia erein zenutenei, urte batzuk beranduago, esker onez zioen oroigarriak.* /2003-07-24



GEMMA LORENZO
Ikaslea

Gatzagako Andramaixen Kartel Lehiaketa Gemma Lorenzok irabazi zuen. Gemmak 6 urte ditu. Guztira lehiaketan 14 haurrek parte hartu zuten. /2003-07-24

EGONALDIA

Herriko gutxitu psikikoak Aozaratzan izan ziren

Maritxu Alegriaren ardurapean oporralditxo pasatu zuten herriko gutxitu psikikoek Aozaratzan. Zortzi gaixo izan ziren bertan, aste-betez. Bi helburu nagusi izan zituen egonaldiak: batetik, gaixoen familiari astea ardura barik uztea, eta bestetik, gaixoen arteko harreman sendotzea. /2003-07-24

SAN MARTIN EGUNA

San Martin eguna ospatu zuten uztailearen 6an

Ohiturari eutsiz, uztaileko lehenengo domekan San Martin eguna ospatu zuten gatzagarrek. Lehenengo, herritarrek meza entzun zuten Martin deunari eskainitako basilizan. Eta luntx ederraz disfrutatu eta gero, lantxoan edo dokean jokatu zuten herritar askok. /2003-07-11



Meza entzun ondoren, Udalak prestatutako luntxaz gozatu zuten herritarrek.

UDAL ANTOLAMENDU BERRIA

Lan egiteko bost batzorde eratu zituen udalbatza berriak

Agintaldiko lehenengo osoko bilkuran Eskoriatzako udal antolamendu berria zehaztu zuten. Bost batzorde osatu zituzten: Ogasuna, Pertsonalgora eta Gobernu, Hirigintza, Kultura eta Zerbitzu Sozialak. Horietatik lautan EA-EAJ koalizioa kideak jarri ziren batzordeburu. /2003-07-24

AZKOAGA
ESTANKOA

Zure zerbitzura
ESKORIATZA

*Ondo buka dezazuela
2003. urtea
eta hobeto hasi
urte berria!*

Mendraka
Txakolina

Tel: 94 682 00 00
ELORRIO

ABUZZTUA



Herriko hainbat elizateetan auzoko jaiak ospatu zituzten

Uda osoan Eskoriatzako elizateetako jaiak ospatu zituzten. Ekainean San Juanak izan ziren Mendiolan eta San Pedroak Zarimutzen. Uztailean, berriz, Marinen Madalenak ospatu zituzten. Abuztuan, ostera, Gellaon eta Mazmelan Andramaixak izan ziren. Meza nagusiaren ondoren auzotarrendako luntxa izan zuten. /2003-08-31

HILEKOESALDIA

**“Hurbildu zaizkigu
Andramaixak;
beraz, ohiko
bizimodua ahaztu
eta murgil gaitezen
jai giroan”**

JOXERRA PEREZ / ALKATEA

2003-08-31

HILEKODATUA

352

**PERTSONA PASATU ZIREN
ABUZZTUAN GATZ MUSEOTIK**

Talde bisitarik ez eduki arren, abuztuan, guztira, 352 pertsona pasatu ziren Gatzagako Gatz Museotik. /2003-08-31


KANPALEKUA

Gutxitu fisiko eta psikikoendako kanpalekua izan zen Degurixan

Gipuzkoako gutxitu fisiko eta psikikoek aurten ere hitzordu garrantzitsua izan zuten udan. Beste behin, Behar-Zana elkar-teak egindako antolaketa lanari esker, Degurixako zelai ederretan elkartu ziren kanpalekua egiteko. Aurten 80 lagun inguruk

eman zuten izena. Gehienak, urterro moduan, Debagoienekoak eta Urolako ibarrekoak izan ziren. Eskoriatzatik guztira 25 pertsonak hartu zuten parte Degurixako kanpaldian. Ia gehienak lanera joandako herritarrak izan ziren. /2003-08-31

ZUNTZ OPTIKOA SARTZEKO LANAK



ABUZZTUAN HERRI ERDIALDEAN HASI ZITUZTEN ZUNTZA SARTZEKO LANAK

Zuntz optikoa sartzeko lanak hasi ziren Eskoriatzan

Abuztuan hasi zen Euskaltel konpainia Eskoriatzan zuntz optikoa sartzeko lehenengo lanak egiten. Herriaren erdialdean egin zituzten zuntza sartzeko aurreneko zuloak.

**Urte berri zoriontsuena opa dizue Lenizek!
Ondo ibili!**

KONPONKETAK: TXAPA, MARGOA, MEKANIKA

Bigarren eskuko autoen salerosketa, injektoreen konponketa eta I.A.T. aurreko azterketa

Aingeru Ibiltokia 31 • ESKORIATZA
Tel.: 943 71 50 61 / Faxe: 943 71 31 45
Posta-e: rleniz@euskalnet.net



FAGOR



ELEKTRATRESNA TXIKIKO NEGOZIOA

Gabon zoriontsuak igaro ditzazuela guztiok!

Aingeru guarda ibilbidea z/g
Tel.: 943 03 91 00 • 943 71 54 52 (SAT)

IRAILA



"Udal langile, eraginkor eta azkarra eman gura diogu Eskoriatzako herriari"

JUAN KARLOS BENGOA/ ALKATEA
2003-09-12



"Andramaixa jaietan gogotik parte hartzeko esango nieke gatzagarrei"

JON SASIAIN/ KULTURA ZINEGOTZIA
2003-09-05

HILEKOESALDIA

"Gerrara boluntario doanak ez daki gerraren gainean gauza askorik, bestela ez litzateke joango"

ESTEBAN PLAZAOLA/ ERRETIRATUA
2003-09-26

HILEKODATUA

14

EHIZTARI ELKARTU ZIREN ZANBRANAKO TXAPELKETAN

Eskoriatzako Aldaibe ehiza eta arrantza elkarteak Zanbranan antolatutako txapelketan 14 lagunek parte hartu zuten. /2003-09-18



Giro polita eta jende ugari aurtengo Gatzagako Andramaixa jaietan

Irailaren hasieran Andramaixak izan ziren Gatzagan. Herriko kultura zinegotzia pozik azaldu zen jaiek izan zuten erantzunarekin: "Egunez jende ugari ibili da gurean. Domekan eta astelehenean, batez ere, lagun asko etorri da Leintz Gatzagara". Bertsolariak, herri bazkaria eta txirrindularitza lasterketa izan ziren, besteak beste, ekintzarik aipagarrienak. /2003-09-12


KIROL ESKAINTZA ZABALA

Ikasturtea hastearekin batera, Eskoriatzako kiroldegia kirol eskaintza zabala gertatu zuen. /2003-09-19

AUZOTARRAK ELKARTZEKO LEKURIK EZ

Eskoriatzako Udala konturatu zen Mazmelan, Marinen eta Zarimutzen auzotarrek ez dutela elkartzeko lokalik. /2003-09-12

AIPAGARRI



ALBERTO ALTUBE
Dorleta batzordekoa

Alberto Dorleta Txirrindulari batzordeko koordinatzailea da. Batzordeak erronka berriak ditu. Aipagarriena: Txirrindularitza Museo- a egitea. /2003-09-05



MIKEL IZURRATEGI
Bolibaroko alkatea

Irailan zehar erabaki zuten Eskoriatzako elizateetan alkateak zeintzuk izango ziren. Bolibarren Mikel Izurrategi aukeratu zuten berriz alkate. /2003-09-26



UNAI SALABERRIA
Maringo alkatea

Bolibarren moduan, Marinen ere irailan aukeratu behar izan zuten alkatea. Kasu honetan ere, aurreko urteetan egondako alkate bera aukeratu zuten. /2003-09-26

ERAKUSKETA

'Hazia erein zenuteno' erakusketa izan zen ikusgai

Espainiako gerran hildakoen eta fusilatutakoen gainekoa da *Hazia erein zenuteno* erakusketa. Ibarreko herrietan erakutsi ondoren, Gatzagan izan zen erakusketa. Erretiratuen egunean, irailaren 13an, askok ikusi zuten erakusketa, tartean baita Esteban Pla-

zaolak ere. ZE BARRI?k Estebanekin hitz egin zuen eta 36ko gerran gertatutako pasarte ugari kontatu zizkigun. Gerrak oroitzen latzak dakarziola esan zigun Estebanek, eta erakusketarekin biziki hunkitu zela aitortu zigun. /2003-09-16

EUSKAL DANTZAK

Hainbat gaztetxo euskal dantzak ikasten hasi ziren

Beste herri askok bezala, Eskoriatzak ere urtetan izan zuen euskal dantza taldea: Gorosarri taldea. Baina aurrera egiteko jendea falta zuela-eta, 1998an desagertu egin zen. Irailan, Udalak bultzatuta eta Musika Eskolaren ardurapean, euskal dantzak ikasten

hasi ziren umeak. Irailaren 19an hainbat ume elkartu ziren Eskoriatzako frontoian. Amaia Doyague arrasatearra hasi zen haur horiei guztiei euskal dantzak irakasten. Lehenengo dantza eskola egunean 4 eta 7 urte arteko 22 ume batu ziren. /2003-09-26

OSASUNA

Gripearen aurkako txertoa hartzeko kanpaina hasi zen

Urriaren 31ra arte eman zituzten osasun etxean gripearen aurkako txertoak. 65 urtetik gorakoek eta diabetesa edo giltzurruneko, gibeledko edo bihotzeko gaixotasunen bat dutenek hartu behar izan zuten txertoa. Erizainak elizateetatik ere pasatu ziren txertoa jartzera. /2003-09-19



Naturarekin bat eginik!



- Jatetxea
- 7 txabola guztiz prestatuta
- Urte osoan zabalik



Zorionak eta urte berri on!

Informazioa eta erreserbak: 943 71 51 64 eta 617 78 74 32 LEINTZ GATZAGA

URRIA



"Jokalariak ibarrekoak izan dira bai lehen eta baita orain ere"

MANOLO MUÑOZ/ ESKORIATZA K.E.

2003-10-03



"Gure asmoa da etxeko euskara hori berreskuratzeko eskolak ematea"

KARMELE AGIRREGABIRIA/ IRAKASLEA

2003-10-17

HILEKOESALDIA

"XXI. mendeko eskolagabeak teknologia berriak ezagutzen ez dituzten horiek izango dira"

XABIER ESKIBEL/ MENDIKOI

2003-10-17

HILEKODATUA

150

NESKA-MUTIKO ELKARTU ZIREN EZKURTXXOREKIN

Urriaren 25ean 150 neska-mutiko izan ziren Ezkurtxorekin Mazmolan. Umek trenean bidaiatu zuten. /2003-10-31



Oporraldien osteko osoko bilkura

Opor ostean egindako lehenengo osoko bilkura lasai-lasai joan zen. Udalbatza osatzen duten 11 zinegotzietatik zortzi egon ziren. Kontzejupe plataformako bi kidek ere hartu zuten parte osoko bilkuran, mahaian eseri ez ziren arren. Hainbat puntu landu zituzten.

Jorratutako gaien artean, Udal Antolaketa eta Funtzionamendu Erregelamenduan hainbat aldaketa egiteko asmoa erakutsi zuen udalbatzak. Aldaketa nabariak ondorengoak izango lirarteke: batetik, Barne Kudeaketa Batzorde Bereziaren osaketa araudian sartzea; bestetik, orain arte herritarrendako itxiak izan diren bost batzordeak herritarrei zabaltzea.

Dena dela, aldaketa horiei alegazioak jartzeko hilabete-ko epea jarri zuen Eskoriatzako Udalak. /2003-10-03

PATINATZEN IKASTEKO IKASTAROAREN ARRAKASTA

↑ Urrian patinatzen ikasteko ikastaroa hasi zen herrian. Guztira 21 pertsonak eman zuten izena. /2003-10-17

'BERRIA'-RI LAGUNTZA ESKASA

↓ Berria egunkarirako dirulaguntzak emateko kanpainaren emaitzak ez ziren oso oparoak izan Eskoriatzan. /2003-10-24

AIPAGARRI



GURUTZE ORBEGOZO
Kale garbitzailea

Gurutze Orbegozo Gatzagako kale garbitzaile moduan hasi zen lanean. Bi lagun aurkeztu ziren lanpostura eta Gurutze-ri eman zioten, azkenean, lana. /2003-10-03



NAROA ENEKOTEGI
Mezzosopranoa

Naroa Enekotegi eskoriatzarrak arrakasta handia izan zuen New Yorken antzeztutako *Fausto* operan. New Yorken bizi da duela lau urte-tik hona. /2003-10-24



AINARA OLABARRIETA
Ludotekako begiralea

Bizkaitarra da Ainara Olabarrieta, Lezamakoa. Irakasle izateko ikasketak egin zituen HUHEZIn eta aurten Gatzagako ludotekan hasi da lanean. /2003-10-31

LANAK

Gaztañaduiko hainbat etxe bota egin zituzten

Urri amaieran Gaztañadui kaleko 27, 29 eta 31. zenbakidun eraikinak bota egin zituzten. Hutsune ederra geratu zen bertan. Hutsune horretan enpresa eraikitzaile batek 32 etxebizitza eta 40 garaje egiteko asmoa du. Eraikinaren eraispena kontrolpean egin zuten, baina hala ere,

arriku guztiak baztertzeko helburuarekin, bi egunean kalea itxita egon zen. Gaztañadui eraikinen eraispenarekin herriko historiaren zatitxo bat bota zuten, baina Zubiateko labe ospetsua, monumentu historiko izendatua, bere horretan utzi zuten. /2003-10-31



Gaztañaduiko eraikinen eraispen lanak.

ERREPIDEAK

Hainbat baserrietara doazen bideetan galipota bota zuten

Bolibarren Aginara doan bidexkan eta Leterantz doan bidean galipota botatzen ibili ziren urri hasieran. Baserrietara doazen bide gehienak hormigoiz eginak zuden, auzolanean egindako bideak baitziren gehienak. Bolibarren eta Leten 10.000 euroko kostua izan zuten lanek. /2003-10-03

TXIRRINDULARITZA

Gatzagako I. Mendi Bizikleta Irteera antolatu zuten

Urriaren 5ean I. Mendi Bizikleta Irteera egin zuten Gatzagan. Eguraldiak lagundu ez zuen arren, txirrindulari ugari batu ziren 27 kilometroko ibilbidea egiteko. Proba amaituta, txirrindulariak pozik azaldu ziren bai ibilbidearekin eta baita antolatzaileen lanarekin ere. /2003-10-10



Larmanta

Lentzeria
umeen moda
eta opariak

Tel: 943 71 53 87
Gaztainadui 21
ESKORIATZA

Josunek eta Maitek gabon zoriontsuak opa dizkizute !!



AZAROA



"80 kilo irin, 8 kilo hirugihar eta beste 10 kilo txistor prestatuko ditugu"

AMAIA OLABE/ SORGINAK TALDEKOA
2003-11-07



"Eskoriatzarrok herri bezala garena erakutsi gura dugu"

LOREA AGIRIANO/BAI EUSKAL HERRIARI
2003-11-28

HILEKOESALDIA

"Gurpildun aulkian dabilzanek ez dute legea egiten, ezta beraientzat egiten diren lanen ikuskapena ere"

KARMELE IGLESIAS/ HERRITARRA
2003-11-28

HILEKODATUA

27

LAGUN HASI ZIREN EUSKARAZKO JOLASAK IKASTEN

Urtxintxa aisialdi eskolako begiraleen eskutik 27 lagun ibili ziren euskarazko kantu eta jolasak ikasten. /2003-11-14



Giro polita eta jende ugari Gatzagako San Milixanetan.

Eguraldi paregabea egin zuen azaroaren 9an Gatzagan. Jende ugari hurbildu zen San Milixanetako azoka ikustera. Artisauek gogotik egin zuten lan eta produktu ugari saldu zituela esan zigun batek baino gehiagok. Egubakoitz eguerdian, berriz, *Gatzaga 2003* diaporamaren egileak eta ibarreko hainbat lagun egon ziren diaporamaren lehen emanaldian. /2003-11-07

GATZAGAKO MUSEOAREN ARRAKASTA

↑ Gatzagako Gatz Museoak orain dela hiru urte zabaldu zituen ateak, eta badirudi dena ondo doala. /2003-11-21

USO DENBORALDI KASKARRA

↓ Eguraldi txarraren ondorioz usoek beste bide batzuk hartu zituzten, eta ehiza denboraldia kaskarra izan zen. /2003-11-28


AIPAGARRI



XANTI IPARRAGIRRE
Euskaltzalea



JUAN MARI MAKAZAGA
Ehiztaria



TXELU ANGOITIA
Argazkilaria

Bertsotan Euskara Landu ikastaroa jarri nahi zuten abian Kontzejupe plataformakoek. Horretarako Xanti Iparragirrenera jo zuten. /2003-11-21

Uso denboraldia txarra izan dela eta *Pekeño*-rekin egon ginen denboraldiari buruz hitz egiten. Inoiz baino uso gutxiago harpatu zituztela esan zuten. /2003-11-28

Txelu Angoitia argazkilaria izan zen *Gatzaga 2003* diaporamarako argazkiak ateratzeaz arduratu zena. Gidoia, berriz, Juan Martin Elexpuruk egin zuen. /2003-11-07

POESIA ERREZITALDIA

Kirmen Uriberen eta Mikel Urdangarinen ikuskizuna HUHEZIn

HUHEZInko Fakultateak, Udalaren laguntzaz, *Zaharregia, txiekiegia* agian poesia eta musika ikuskizuna eskaini zuen. Jende ugari gerturatu zen Kirmen Uribe, Mikel Urdangarinek, Rafa Ruedak eta Bingen Mendizabalek emandako ikuskizuna ikustera. /2003-11-21

BERTSOLARITZA

Gipuzkoako Bertso Txapelketako finalerdia jokatu zen

Maialen Lujanbio hernaniarra nagusitu zen, 511 punturekin, azaroaren 16an Eskoriatzan jokatu zen Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako lehen finalerdian. Herritar asko hurreratu ziren Eskoriatzako kiroldegira saioa ikustera, eta bertsolariak saio polita eskaini zuten. /2003-11-21



Maialen Lujanbiok lortu zuen puntuazio onena eta Mendiluze bigarren geratu zen.

EGUZKI PLAKAK

Eskoriatzako kiroldegian eguzki-plakak jarri zituzten

Kiroldegian eguzki-plakak jarri zituzten azaro amaieran. Hiru aste lehenago hasi ziren plakak teila-tuetan jartzeko lanak. Lehenengo fasean eguzki-plakak jarri zituzten teila-tuetan. Horren bitartez, igerilekuko uraren tenperaturari eutsi eta kiroldegian behar den ur bero guztia lortuko dute. /2003-11-28

PAGALDAI
HARATEGIA-URDATEGIA

Gaztainadui 15
Tel.: 943 71 51 97
ESKORIATZA

Zorionak denoi!

ABENDUA



"Berritze ona behar zuen parrokiak bai barrutik eta bai kanpotik ere"

J.R. BEITIA / AUZO ALKATE OHIA
2003-12-12



"Garro jauregiak erosotasun handiagoa izango du berogailuarekin"

FELIPE MARTELO / ITURGINA
2003-12-19



Apotzagako parrokia inauguratu zuten

Abenduaren 14an inauguratu zuten apotzarrek auzoko parrokia. Juan Mari Uriarte Donostiako elizbarrutiko gotzainak, beste bost abaderekin batera, esan zuen meza nagusia. Herritar askok hartu zuten parte ekitaldian.

Urte bi iraun dute zaharberritze lanok eta 260 mila euroko kostua izan dute. Kanpoaldetik eta barrualdetik konpondu dute parrokia. Egoera eskasean zegoen Apotzagako eliza. Aspaldian konponketa lanik egin barik teilatua behe-za zetorkion eta barrualdean hezetanaren erruz hainbat arazo zituzten. Elizaren hormak pikatu egin dituzte, eta zarpiatu; gangako harriak garbitu egin dituzte, argiztapena berritu, egurrezko lurzorua berritu eta garbitu eta erre-aula leundu, besteak beste. Egun ederra pasatu zuten apotzarrek. /2003-12-19

HILEKO ESALDIA

"Ondo jan, ardo ona edan eta lasai bizi izan; hori da luzaroan bizi izateko sekretua"

ANDRES AGIRIANO / EDADETUENA
2003-12-05

HILEKODATUA

80

LAGUN ELKARTU ZIREN ELKARTASUN AFARIAN

80 eskoriatzarrek hartu zuten parte abenduaren 19an Atxorrotz GKEK antolatutako elkartasun afarian. /2003-12-19


LURDES ETXEBARRIAK KUTXA SARIA JASO ZUEN

Hizkuntzen Psikopedagogia ikasketak egin ditu Lurdes Etxebarriak HUHEZIn. Emaitzarik onenak lortu ditu. /2003-12-19

TRABA UGARI SORTU ZIREN 627 ERREPIDEAN

Gatzagako bidean Foru Aldundiko langileek egin dituzten lanek traba bat baino gehiago eragin zien gidariei. /2002-01-19

AIPAGARRI




FELIX MARTI
Filosofia irakaslea

Kataluniako Unesco zuzendari ohia egon zen Arizmendiko batxilergoko ikasleekin. Izugarritzako arrakasta izan zuen Martik egindako hitzaldiak. /2002-01-18



TAKOLO, PIRRITX...
Pailazoak

Urtero moduan arrakasta izugarria izan dute Takolo, Pirritx eta Porrotx pailazo ezagunek. Aurten *Poxpolin Mari Sorgin* ekarri dute lagun, gainera. /2003-12-05



JAVIER VILLAR
Txapelduna


Gatzagako Pilota Txapelketan Javier Villar eta Asier Heriz nagusitu ziren. 11 bikotek hartu zuten parte. Giro ederra eta maila ona erakutsi zuten pilotariek. /2002-01-18

EHNA TRAMITATZEKO EGUNA

135 EHNA tramitatu zituzten abenduaren 14an Eskoriatzan

Eskoriatzan ere, Euskal Herriko Naziotasun Aitorpena egiteko mugimendua jarri zuen martxan Bai Euskal Herriari taldeak. Abenduaren 14an EHNA tramitatzeko ekitaldia egin zuten udal-letxe oso bilkura aretoan. Jai giroa nagusi izan zen trikiti eta txalaparta soinuekin. Herritar

ugarri hurbildu ziren udaletxe-raino EHNA egiteko. EHNA mugimenduari Udalak eta herriko beste hamar talde edo elkar-tek eman zioten atxikimendua. Talde politikoen artean, berriz, EAJk, Eak eta Kontzejupe plataformak eman diote babesa EHNA agiriari. /2003-12-19



135 lagunek egin zuten EHNA agiria.

KULTUR ESKAINTZA ZABALA

Kultur ekitaldi ugari Gabon jaiak protagonista hartuta

Amaitzear dagoen abendua ekitaldiz gainezka egon da Eskoriatzan. Ipuin kontaketa, hitzaldiak, ikus-entzunezko erakustaldia, sukaldaritza ikastaroa, antzerkia eta Gabon jaiekin lotutako bestelako ekitaldi ugari-ekin disfrutatze aukera izan dute eskoriatzarrek. /2003-12-05

KZGUNEA

KZGunea antolatzen hasi dira Gatzagako Garro jauregian

Azkeneko hilabeteotan Gatzagan bitan izan da Mendikoi, Eusko Jaurlaritzako Landa Garapenerako institutuaren Mendinet autobusa. Herritarrek teknologia berrien gaineko ikastaroak egin dituzte. Bi taldek hartu zuten parte ikastaroetan. Orain, berriz, KZGunea jarriko dute Garron. /2003-12-19



Urte berri on denoi!

San Migel jatetxea

Apotzaga auzoa ESKORIATZA 943 71 48 71

- Ostiraletan menu bereziak
- Asteburuetan, karta eta plater konbinatuak

Eskoriatzar danoi Gabon zoriontsuak eta urte barri on

